Irakaslearen gidaliburua
(zirriborroa)

3

Dinosauroen garaian
(Txanela - Material globalizatua,
Lehen Hezkuntza - 1. maila)

TXANELA 1
3. unitate didaktikoa
DINOSAUROEN GARAIAN

LABURPENA

Maddalenek, Ferminek, Urdintxok eta Poxek birraitonaren ametsa betetzea dute helburu, museo bat eraikitzea, alegia. Birraitonaren Denboraren makina konpondu dute, eta denboran eta espazioan barrena hainbat bidaia eginez, informazioa bilduz eta jarduera asko eginez, museorako piezak eskuratuko dituzte. Unitate honetan, Maddalenek eta Ferminek bezala, gure lehen bidaiari ekingo diogu: dinosauroen garaira joango gara.

Unitateari hasiera eman eta gai berrian kokatzeko, unitatearen azalari behatu, eta komikia irakurriko dugu. Ikasi nahi dugunaren ildo nagusiak finkatu aurretik, ikasleek gaiari buruz dakitena azaleratzen saiatuko gara. Hurrengo jarduera blokeari ekin baino lehen, dinosauroen txokoa eraikitzen hasi, eta Maddalen eta Ferminen denboraren makina (*Birraitonaren museoa* CD-ROMa) ezagutuko dugu.

Sekuentziaren hurrengo fasean, dinosauroak utzitako aztarnen inguruan arituko gara: bideoa ikusi, ikerketatxo bat egin, elkarrekin jolastu eta abesti bat ikasiko dugu.

Ondoren, gure lanari helburua jarriko diogu: dinosauroen garaiko maketa-erakusketa egiten hasiko gara. Egunero-egunero, ikusi eta ikasitakoa proiektua garatuz aplikatuko dugu.

Liburuak etxera eraman aurretik, unitatean zehar egindakoa gogoratu eta balioetsiko dugu. Bukatzeko, liburuxka etxera eramango dugu familiari erakusteko. Etxekoen lana haurraren azalpenak entzutea, egindakoa positiboki balioestea eta beren iritzia idatziz adieraztea izango da.

Unitate honetan, beharrezkoa den testuinguruetan, **gaztelania** landuko dugu. Gure proposamena, betiere, hizkuntza arrunta (kolokiala) menderatzen ez duten ikasleei zuzenduta egongo da. Beraz, hizkuntza idatzia ez da helburu izango, ahozkoa hizkuntza baizik. Ikuspegi komunikatibotik hizkuntza-kontuak egiteko erabiliz ikasiko dute. Hori dela eta, edozein jarduera izan daiteke horretarako baliagarria, era horretan landuz gero. Dena den, guk eredu batzuk sartu ditugu unitatean. Eredu horietan ikusi daitekeenez, elkarrekintzarako eskaintzen den hizkuntza oso xehatua dago. Bestalde, literatura-testuak proposatzen dira, ulermen orokorra lantzeko eta literaturaz gozatzeko.

MATERIALA

- Unitate honen gida:
  - Jardueren zerrenda
  - Unitate honi dagozkion ziklo amaierako helburuak.
  - Unitateko ebaluazio-irizpideen taula.
  - Unitatea hiru astetan egiteko planaren proposamena.
  - Jardueren azalpena eta helburuekiko eta ebaluazio irizpideekiko lotura.
  - Eranskinak.

- Hiztegi-jokoak egiteko irudiak helbide hauetan aurkituko dituzue:
  http://www.activityvillage.co.uk/pdfs/dinosaur-flashcards.pdf
  http://www.activityvillage.co.uk/pdfs/dinosaur-flashcards-information.pdf

- Dinosauroei buruzko informazioa honako webguneetan aurkituko duzue:
  http://www.duiops.net/dinos/index.html
  http://www.riojainternet.com/prehistoria/ruta.htm
  http://www.salonhogar.com/ciencias/animales/dinosaurios/
  http://www.monografias.com/trabajos/dinosaurios/dinosaurios.shtml
  http://www.revista.unam.mx/vol.2/num4/sabias1/index.html
  http://dinos.valvanera.com/

- Buztina, argazki-makina eta ikasleen argazki txikiak; komikia antzezteko motxila, zerrenda eta denboraren makina; dinosauroen tamaina lantzeko soka eta koloretako zintak; herensugea egiteko oihalak eta makilak; sumendia egiteko materiala (ikusi 16. jarduera)

- Liburu digitala (zoom-liburua)

SEKUENTZIA	PROIEKTUAREKIKOAK	JARDUERAK	IZAERA
- Aurre-ezagutzak aktibatu - Gaiarekiko motibazioa sortu - Aurreikuspen estrategiak landu - Zer jakin nahi duzu?	Aurre-ezagutzak aktibatu, motibazioa sustatu eta aurreikuspen estrategiak landu	1. Azalaren behaketa eta elkarrizketa 2. Komikia 3. Zer ikusi dute lehen bidaian? 4. Komikiaren aurre-antzezpena 5. Komikiaren antzezpena eta aldaerak 6. Zer dakizu dinosauroei buruz? 7. Dinosauroen txokoa 8. Birraitonaren museoa I, CD-ROMa	1. Garrantzizkoa 2. Garrantzizkoa 3. Osagarria 4. Hautazkoa 5. Osagarria 6. Garrantzizkoa 7. Garrantzizkoa 8. Garrantzizkoa
- Dinosauroen aztarnak	Fosilak: maketaren ingurua	9. Nola dakigu existitu zirela? 10. *Dinosauroen bila* abestia 11. Hotza ala beroa? 12. Abestia txukuntzen 13. Bideoa	9. Garrantzizkoa 10. Garrantzizkoa 11. Osagarria 12. Osagarria 13. Garrantzizkoa
- Dinosauroen garaiko maketa.	Maketa: Proiektua definitu, planifikatu eta ekin	14. Proiektuaren aurkezpena: dinosauroen garaiko maketa 15. Zer jakin behar dugu maketa egiteko? 16. Paisaia eta sumendia 17. Olerkia: sumendia 18. Nolakoak ziren eta zer jaten zuten? 19. Dinosauroei buruz gehiago jakiteko 20. Deskribapentxoak 21. Zer dute berdina izen hauek? 22. Berdinak direnak kolore berarekin margotu 23. Letra-zopa 24. Elkartasunezko jolasa **25. Artelana: vamos a hacer un dragón articulado** 26. Ipuina: Amona Blasi eta herensugekumea 27. Liburutegiko maskotaren aurkezpena 28. Olerkia 29. Entzunaldia: Berliozen sinfonia fantastikoa 30. Gonbidapenak 31. Azalpen testua **32. How were dinosaurs born?** 33. Zergatik desagertu ziren? 34. Desagertzear dauden animaliak 35. Silabak ordenatuz 36. Hitz gurutzatuak 37. Abestia: Astoa ikusi nuen **38. Curro nos visita otra vez**	14. Garrantzizkoa 15. Garrantzizkoa 16. Garrantzizkoa 17. Hautazkoa 18. Garrantzizkoa 19. Hautazkoa 20. Osagarria 21. Osagarria 22. Osagarria 23. Osagarria 24. Garrantzizkoa 25. Garrantzizkoa 26. Garrantzizkoa 27. Osagarria 28. Osagarria 29. Osagarria 30. Garrantzizkoa 31. Osagarria 32. Garrantzizkoa 33. Garrantzizkoa 34. Osagarria 35. Osagarria 36. Osagarria 37. Hautazkoa 38. Hautazkoa
- Egindakoa berrikusi	Proiektuaren balorazioa eta komunikazioa	39. Komikia 40. Zer dakigu orain dinosauroei buruz? 41. Egindakoa berrikusten	39. Garrantzizkoa 40. Garrantzizkoa 41. Garrantzizkoa

Herensugeak

Animaliak

3. UNITATE DIDAKTIKOA: ZIKLO AMAIERAKO HELBURUEN ETA JARDUERREN ARTEKO HARREMANA	
4.4 Hainbat testuingurutan, proposamen jakin baten arabera, proiektu bat egitea inplikatzen duten ekintzak	9, 40, 41
HIZKUNTZA ARLOA (1)	
HELBURUAK	JARDUERAK
1.1 Ahozko azalpen sinple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaiei buruzkoak).	19, 25, 26, 28, 29, 31, 38
1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren ahozko mezu sinpleetan, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion informazio zehatzak identifikatzea.	20, 31, 38
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	1, 4, 14, 15,20, 24, 26, 27, 30, 32, 33, 34, 41
1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaeren eta esperientzien kontaketa, bizipenak…) ahozko aurkezpen sinpleak egitea eskainitako jarraibideen laguntzaz.	5,13, 24, 25,26
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.	2, 3, 6, 8, 10,12, 16,17,19, 21, 22, 23, 27, 28, 33, 35, 36, 39, 40
1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.	2, 7, 30, 39
1.7 Irakurketa helburuari erantzuteko informazio aurkitzea eta aukeratzea, eskueran jarritako informazio-iturriak erabiliz.	7, 9, 13, 33
1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	9,12, 18, 27, 36
1.11 Euskara ohiko komunikazio-eremu eta egoera gehienetan erabiltzea, euskararen normalizazio eta euskal kulturaren transmisio-prozesuetan aktiboki parte hartuz.	5, 11, 37
1.12 Ahozko literaturako hainbat testu ezagutzea eta erabiltzea nork bere kultura-nortasuna eraikitzeko eta, testu horietako adierazpen baliabide batzuk aztertuz, ulermen eta adierazpen gaitasunak aberasteko.	25, 27, 37, 38
1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.	8,17, 26, 27, 28, 37, 38
INGURUMENAREN EZAGUERA ARLOA (2)	
2.1 Ingurumen fisikoko oinarrizko elementuak eta baliabideak pertsonen bizitzarekin duten harremana ezagutzea eta haiek modu arduratsuan erabiltzeko beharraz jabetzea.	34
2.2 Oinarrizko irizpideak erabiliz, norberaren inguruko animalia eta landare garrantzitsuenak ezagutu eta sailkatzea, bai eta hainbat bide erabiliz lortutako informazioari esker ezagunak diren beste zenbait espezie ere.	32
2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atseden eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzea; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutuz, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.	24, 41
2.5 Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.	4, 11, 24
2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.	7,9,16,18
ARTE HEZKUNTZA ARLOA (3)	
3.1 Musika entzumen bidez hautematea eta ulertzea.	29
3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.	10, 37
3.3 Erreferente plastikoak eta ikus-entzunezko erreferenteak ulertzea, hautematea eta interpretatzea.	25, 30
3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.	9, 16, 25, 29, 30
HELBURU METADISZIPLINARRAK (4)	
4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetza eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.	1, 4, 6, 8, 13, 16, 18, 20, 23 40
4.2 Hainbat testuingurutan lanaren plangintza egitea, proposamen jakin baten arabera ezarriko diren faseak arrazoituz.	14, 15,16

25.																								
3. U.D **EBALUAZIO IRIZPIDEAK**	1.1.1Azalpena arretaz entzuten du.	1.12. Ulermen-elementuen esanahia interpretatzen	1.1.3 Gaia identifikatzen du.	1.1.4 Testu baten oinarrizko ideiak gogoratzen ditu.	1.2.1 Ahozko jarraibideen arabera jokatzen du.	1.2.2. Datuak zeregina burutzeko erabiltzen ditu.	1.3.1 Berez parte hartzen du ekarpenak egiteko.	1.3.2 Esandakoari buruzko galderei erantzuten die.	1.3.3 Hitzezkoak ez diren baliabideen esanahia ulertzen du.	1.3.4 Elkarrizketa-arauak aplikatzen saiatzen da.	1.3.5 Erraztasunez adierazten ditu ideiak.	1.4.2 Koherentziaz azaltzen ditu ideiak.	1.4.4 Zuzentasunez hitz egiten du.	1.5.1 Idatziaren behaketan aktiboki parte hartzen du.	1.6.2 Testu-genero sarrienak bereizten ditu.	1.6.3 Hitzezkoak ez diren elementuak interpretatzen ditu.	1.7.1 Galderei erantzuteko informazioa aurkitzen du.	1.8.1 Eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du.	1.8.3 Testua egoki aurkezten du.	1.11.1 Euskara erabiltzen du	1.11.2 Narrazioak argitasunez adierazten ditu.	1.12.1 Testu motzak erezitatzen ditu.	1.12.2 Pasarte laburrak adierazten ditu.	1.13.1 Literaturaz gozatzen du.
JARDUERAK	26 29 31	28 38	1 25 29 31	19 26	38	20 31	1 8 14 15 24 27 30 32 33 34 41	15 20 26 41	4	1 8 14 15 30 32 33 34 41	26	13	5 24 25	2,3 6, 8 10 12 16, 17 19, 21 22, 23 27, 28, 33, 35, 36, 39, 40	30	2 7 39	7 9 13 33	9 18 27 36	12	11	5 37	5 25	27 37 38	8 17 26 27 28 37 38
IKASLEAK																								
1.																								
2.																								
3.																								
4.																								
5.																								
6.																								
7.																								
8.																								
9.																								
10.																								
11.																								
12.																								
13.																								
14.																								
15.																								
16.																								
17.																								
18.																								
19.																								
20.																								
21.																								
22.																								
23.																								
24.																								

3. U.D EBALUAZIO IRIZPIDEAK	2.1.2 Ingurumenean dugun eragina identifikatzen du.	2.2.2 Animaliak sailkatzeko gai da.	2.3.4 Bere sentimenduak identifikatzen ditu.	2.5.1 Gelako kideen harremanetan parte hartzen du.	2.9.1 Behaketaren bidez ezagutzeko interesa du.	2.9.3 Informazio-iturriak erabiltzen ditu.	3.1.4 Konposizio laburrak aktiboki entzuten ditu.	3.1.6 Musika-lanak entzuten gozatzen du.	3.1.9 Entzunaldietan egoki jokatzen du.	3.2.2 Abestiak aho batez interpretatzen ditu.	3.2.3 Abestiak eta dantzak interpretatzen ditu.	3.2.8 Adierazpenarekin gozatzen du.	3.3.4 Arte-objektuak aztertzeko jakin-mina du.	3.4.1 Marrazkiak... egiten ditu, sentimenduak adierazteko.	3.4.7 Baliabide digitalak aztertzen ditu ekoizpenerako.	3.4.8 Materialak manipulatuz gozatzen du.	4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.	4.1.3 Lankidetzan errespetuz aritzen da.	4.2.1 Prozesuaren aurrelikuspena egiten du.	4.4.1 Prozesuan landutakoaren bilketan parte hartzen du.	4.4.2 Prozesuan egindako aurrerapena balioesteko gai da.
JARDUERAK	34	32	24 41	4 11 24	16	7 9 18	29	29	29	10	37	10 37	25	25 29	30	9 16 25	1 6 8 13 18 23 20 40	16 18	14 15 16	40	9 40 41
IKASLEAK																					
1.																					
2.																					
3.																					
4.																					
5.																					
6.																					
7.																					
8.																					
9.																					
10.																					
11.																					
12.																					
13.																					
14.																					
15.																					
16.																					
17.																					
18.																					
19.																					
20.																					
21.																					
22.																					
23.																					
24.																					
25.																					

TXANELA 1.3 : DINOSAUROEN GARAIA				
Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
- Azalaren behaketa - Zer ikusi dute lehen bidaian? - Dinosauroen txokoa: txokoa aurkeztu, izena jarri eta gutunari banatu	- Komikia - Komikiaren aurre-antzezpena - Olerkia: 28. jarduera	- Zer dakizu dinosauroei buruz? - Komikiaren antzezpena eta aldaerak	- Zer jakin nahi duzu dinosauroei buruz? - Birraitonaren museoa, CD-ROM	- Nola dakigu existitu zirela? - *Dinosauroen bila* abestia (entzun)
- Hotza ala beroa - Bideoa - *Dinosauroen bila* abestia	- Proiektuaren aurkezpena - Zer jakin behar dugu maketa egiteko? - Abestia txukuntzen	- Paisaia - Azalpen testua (irakur) - Zer dute berdina…? (lk) - Dinosauroen txokoa: dinosauroak izendatzen hasi	- Sumendia: egin eta maketan jarri - Olerkiak: Sumendia (irak) - Izen berdinak (lk)	- Zer jaten zuten? - Bilduma: dinosauroak aukeratu, marrazkia egin, izena eta zer jaten zuten idatzi - Dinosauroen txokoa: dinosauroak izendatu
- Nolakoak ziren? (tamaina) - Bilduma: dinosauroen neurria eta ezaugarriak idatzi - Fitxak maketaren inguruan zintzilikatu	- Dinosauroei buruz gehiago jakiteko - Deskribapentxoak - Bilduman aukeratutako dinosauroa plastilinaz egin eta maketan jarri	- Gonbidapena (28. jarduera) - Elkartasunezko jolasa. - Letra-zopa	- **Artelana: vamos a hacer un dragón articulado.** - Ipuina: *Amona Blasi* - Liburutegiko maskota: Bertsoa (lk)	- Ipuina: *Amona Blasi eta herensugekumea* - Liburutegiko maskotaren aurkezpena - Entzunaldia
- Liburutegiko maskota: Komikia (lk) - **How were dinosaurs born?** - Arrautza eta horma-irudia maketaren inguruan jarri	- Zergatik desagertu ziren? Meteoritoak maketan jarri - Desagertzear dauden animaliak - Silabak ordenatuz (lk)	- **Curro nos visita otra vez** - Abestia: *Astoa ikusi nuen* - Hitz gurutzatuak	- Komikia - Zer dakigu dinosauroei buruz?	- Egindakoa berrikusten

IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkartea hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturan ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoa ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkarteak garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jarduera sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea (**www.txanela.net**).** Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, "Txanela Globalizatua" deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** (www.ostadar.net). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jarduera zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

* * * * * * * * * * *

Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (http://www.virtusbooks.com/) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jarduera ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektagailu, erreproduzitzaile, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitalean edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

TXANELA 1

IKASLEAREN LIBURUA - 3. UNITATE DIDAKTIKOA

BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

Gidaliburuko jarduera	Baliabide mota	Edukia	Txanelako orrialdea	Liburu digitaleko orrialdea	Oharrak
0		Baliabideen taula	3	31	
1		Azalari behatzea eta elkarrizketa	3	31	
1		Taldeko elkarrizketa	3	31	
2		Komikia	4-5	32-33	
2		*Adio Euskal Herriari*	5	33	
4		Komikia	4-5	32-33	
6		Zer dakizu dinosauroei buruz?	6	34	
7		Gurasoei gutuna	6	34	
8		Olerkia	7	35	
8		*Denboraren makina*	7	35	
9		Nola dakigu existitu zirela?	8	36	
10		Dinosauroen bila	9	37	
10		*Dinosauroen bila*	9	37	
13		Dinosauroak	8	36	

13		Dinosauroen fosilak	8	36	
14-15		Proiektua: maketa	10	38	
16		Sumendia prestatzen	11	39	
18		Nolakoak ziren eta zer jaten zuten?	12-13	40-41	
18		Dinosauroen altuera	13	41	
21		Zer dute berdina izen hauek?	13	41	Lan-koadernoa, 13. or.
22		Margotu izen berdinak	13	41	Lan-koadernoa, 14. or.
23		Letra-zopa	13	41	Lan-koadernoa, 15. or.
25/30		Artelana	14	42	
26		Ipuina (bertsio luzea)	14	42	Irakurgaiak, 28-31. or.
29		Entzunaldia: *Sinfonia fantastikoa*	14	42	
32		How were dinosaurs born?	15	43	
33		Zergatik desagertu ziren?	16	44	
33		Zergatik desagertu ziren?	16	44	
37		*Astoa ikusi nuen*	16	44	
39		Komikia	17	45	
40		Kontzeptu-mapa	18	46	
41		Egindakoa berrikusten	19-20	47-48	

1. JARDUERA	**AZALARI BEHATZEA ETA ELKARRIZKETA** (Ikusi *Elkarrizketaren kudeaketa* dokumentua)

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.

4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetza eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.

1.3.4 Elkarrizketaren oinarrizko arau sozio-komunikatiboak behar bezala aplikatzen saiatzen da (txanda gorde, hitza eskatu, solaskideak errespetatu...).

4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde txikian/Talde handian
MATERIALA	Liburuaren azala, rolak banatzeko txartelak eta kronometroak.

AZALPENA

- Gelako arduradunek liburuak banatuko dituzte eta ikasleei denbora-tarte bat eskainiko diegu liburua ikusteko eta beren izena idazteko.
- Ondoren, barruan ikusitakoa eta batez ere azalaren behaketa eta elkarrizketa bultzatuko ditugu. Haurren interesei jarraituz eta erronka kognitiboa bultzatuz, aurreikuspen-estrategiak lantzea eta gaiarekiko motibazioa sortzea izango dugu helburu. Oraingoan elkarrizketa talde txikietan bideratuko dugu.
- Ikasleak talde txikietan jarriko ditugu (hiruzpalau ikasle). Behaketa bideratzeko, talde bakoitzari, galdera bat luzatuko diogu. Galderak honako hauek izan daitezke:
  - *Zer jartzen du liburuaren azalean? Denboraren makinan egingo dugun lehen bidaian, nora joango garela uste duzue? Agian, liburuan idatzita egongo da nora joango garen.*
  - *Zer ikasiko dugu dinosauroei buruz? Imajinatzen al duzue nolakoa izango den edo zer ikusiko dugun?*
  - *Zer egingo dugu dinosauroekin? "Sorpresan" unitatean bezala proiektu bat egingo dugu. Zer izango da?"*
  - *Zer ikusten duzue liburuaren azalean?* Azken galdera hori erantzuten saiatzen den taldearekin bideratuko dugu nagusiki azalaren inguruko elkarrizketa, nahiz eta besteei ekarpenak egiteko aukera eskaini.
- Talde txikiko elkarrizketa antolatzeko kide bakoitzari honako funtzio hauetako bat emango diogu:
  Moderatzailea. Talde txikian dauden bitartean, hitz egiteko txandak emango ditu.
  Denbora-kontrolatzailea. Irakasleak denbora-muga bat jarriko du talde txikiko elkarrizketa egiteko eta ikasle horrek taldeari zenbat denbora pasa den edo geratzen den adierazi beharko dio. Adibidez, denbora erdia pasa denean, eta bi minutu geratzen direnean. Horretarako, kronometroak beharko ditugu.
  Esatariak. Taldean pentsatutakoa adierazi egingo diote talde handiari.
  Idazkaria. Taldean esandakoak idatzi egingo ditu. Zuen ikasle taldea rol hori betetzeko prestatua ez badago, bi esatari izendatuko ditugu, eta idazkariaren rola aurrerago beteko dute. Izan ere, ikasle horrek idatziko lukeenak, esatariak irakurtzeko eta ulertzeko modukoa izan behar du.
- Talde txikiko lana era honetan bideratzen dugun lehen aldia denez, komeni da ikasle bakoitzari bere funtzioa gogoraziko dion irudia ematea. Irudi horiek plastifikatu, goiko aldea zulatu eta soka jartzen badiegu, lepotik zintzilikatu ahal izango dituzte.
- Denborari dagokionez, 8-10 minutu nahikoa izango dela uste dugu. Irakasleak, bitartean, talde guztietatik pasa eta ikasleei beren funtzioa betetzen lagunduko die.
- Talde txikiko elkarrizketa bukatzean, ikasle guztiak bilduko ditugu biribilean. Talde bakoitzeko esatariak taldean pentsatutakoa adieraziko dio talde handiari. Ondoren, talde handiari ekarpenak egiteko txanda emango dugu.
- Irakasleak, ikasleen interesei jarraituz eta curriculumaren beharrak aurreikusiz, elkarrizketa bideratuko du. (Ikus *Elkarrizketa bideratzeko irizpideak* dokumentua).
- Azala aztertu duen taldearekin elkarrizketa bideratzeko galderak, honako hauek izan daitezke:
  - *Zein animalia ikusten dituzue? Denak dinosauroak al dira? Izenak ezagutzen al dituzue?*
  - *Inoiz ikusi al dituzue dinosauroak? Non? Existitzen direla uste duzue? Zergatik?*
  - *Zer da S letraren atzean dagoena? Zergatik dago kea? Zer gertatu dela uste duzue?*
  - *Ezagutzen al duzue azaleko haurra? Izena ba al dakizue? Nola sentitzen da Maddalen? Triste? Pozik? Haserre? Pentsakor...? Zergatik ote da? Zuek nola sentitzen zarete? Gogoan al duzue dinosauroei buruz gauza berriak ikasteko?*

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

2. JARDUERA	**KOMIKIA**

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) deskodetzea eta bere esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.

1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.

EBALUAZIO IRIZPIDE

1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzeko interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.

1.6.3 Hitzezkoak ez diren elementuen eta testu-ezaugarri batzuen (irudiak, tipografia, espazioaren banaketa...) esanahia egoki interpretatzen du.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Bakarka/Talde handian/Talde txikian
MATERIALA	Liburua, 4-5. or.; abestien CDa

AZALPENA

- Komikia Txanela proiektuaren lehen zikloko istorioari lotura emango dion elementua da. Horregatik, komeni da aurreko komikian zer gertatu den gogoratzea. *Gogoratzen al zarete nola bukatu zen azkeneko komikia? Nola zeuden Maddalen eta Fermin? Zergatik? Zer uste duzue gertatuko dela orain? Makinak funtzionatu al du?*
- Irakurtzen hasi aurretik, izenburuari so egingo diogu eta elkarrekin irakurriko dugu. Gertatuko denaren inguruko hipotesiak egin eta adierazteko eskatuko diegu ikasleei.
- Haurrei komikia banaka ikusteko/irakurtzeko tartetxo bat eskainiko diegu eta beren ideiak entzungo ditugu: *Zer dugu orrialde hauetan?* (Komikia). *Ezagutzen al dituzue hor azaltzen diren haurrak? Zertan ari direla uste duzue?* Ondoren, binetaz bineta, xehetasunetara joz, talde handian egingo dugu irakurketa. Hizkuntzaren eta komikiaren baliabideetan arreta jartzeaz gain, esanguratsuak iruditzen zaizkigun gertakizunei buruz mintzatuko gara; adibidez: *Zergatik esaten dio Maddalenek Fermini aulkiak jarri beharko dituztela? Aulkiak ez ezik, zer gehiago beharko lukete?* (kaskoa, segurtasun-gerrikoa...)
- Haurren irakurketa-mailak alde handiak izango dituenez, hasiera batean, taldean behatu eta irakaslearen laguntzarekin (edo irakasleak) irakurri egingo du(gu).
- Gelakideen mailaren arabera, lauko taldea(k) antolatu eta haur bakoitzari rol bat emanez (narratzailea, Fermin, Maddalen eta aitona), berriz irakurriko dute talde txikian. Irakurketa hori pertsonaia bera irakurriko duten ikasleak elkarrekin saioak edo irakurri ondoren egin daiteke.
- Bukatzeko, Maddaleni eta Fermini gertatuko zaiena aurreikustea eskatuko diegu ikasleei, eta hipotesiak idatziz jasoko ditugu. *Zer gertatuko zaie Maddalen eta Fermini?* Hurrengo komikian irakurtzerakoan gogora ekarriko ditugu.
- *Adio Euskal Herriari* abestia entzuteko une egokia izan daiteke**.**

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

3. JARDUERA	**ZER IKUSI DUTE LEHEN BIDAIAN?**
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) deskodetzea eta bere esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.	
EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)	
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzeko interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Bakarka
MATERIALA	Lan-koadernoa, 11. or
AZALPENA	

- Fitxako ariketan letra batzuk agertzen dira. Ikasleei irakurtzeko eskatuko diegu. Letrak desordenatuta daudenez zer jartzen duen ulertzea ezinezkoa da. Beraz, letra bakoitzaren bideari jarraitzeko eta biribiltxoetan kokatzeko eskatuko diegu.
- Hitza zein den dakitenean, eskua altxatzeko eskatuko diegu. Haur gehienek eskua altxatu dutenean, *bat, bi, hiru* esatean denok elkarrekin hitza irakurriko dugu: DINOSAUROAK!
- Arbelean jolas txiki bat proposatuko diegu. Hitzaren kontsonanteak bakarrik idatziko ditugu arbelean eta sei bokal idazteko tartea utziko dugu: D_N_S_ _R_ _K. Hutsuneak bokalekin osatzera jolas gaitezke; adibidez: DANASAARAAK, DENESEEREEK, DANESIORUAK... Irakasleak erabaki dezake bokal horiek zein izango diren edo sei ikasleri nahi duten bokala idazteko eska diezaiekegu. Ondoren, taldeak irakurriko du asmatutako hitz berria.
- Jokoarekin jarraitu nahi izanez gero, irakasleak hitz baten kontsonanteak idatz ditzake eta ikasleek bokalen konbinazioak eginez, hitz hori zein den asmatu beharko dute. Adibidez D_NB_R_R_N M_K_N_ (DENBORAREN MAKINA).

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

4. JARDUERA	**KOMIKIAREN AURRE-ANTZEZPENA**

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.

2.5. Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.

4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetza eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.3.3 Hitzezkoak ez diren oinarrizko baliabide adierazkorren esanahia egoki ulertzen du.

2.5.1. Gelako kideen arteko harremanetan parte hartzen du.

4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Liburua, 4-5. or.

AZALPENA

Komikian gertatzen dena elkarrizketa moduan azaltzen zaigunez, egoera antzezteko baliatuko dugu. Hori egin baino lehen joko hauek egingo ditugu:

Gorputz adierazpena lantzeko. Makina bueltaka dabilenean, haurrak saiatuko dira barruan egingo dituzten mugimenduak zein izan daitezkeen asmatzen eta errepikatzen. Horretarako, taldeka bildu (4-5 haur) eta irakasleak tresna baten bidez (bozina, txirrina, danborra, etab.) soinua egingo du. Soinu hori egiten duen bitartean haurrak bueltaka ibiliko dira, hankaz gora, txilipurdika, e.a. Soinua gelditzen denean, denok gelditu egingo dira. Irakasleak, eta ariketari behatzen ari diren beste haur guztiek galdetuko diete: *Ondo al zaudete?* (komikian egiten den galdera) eta haurrek *Bai, baina eserleku batzuk jarri behar ditugu* erantzungo dute. Ondoren, jokoa beste haur talde batek egingo du.

Keinu-adierazpena lantzeko. Jolas honekin bi sentimendu landuko ditugu: harridura eta beldurra. Bi neska mutil dinosauroak izango dira, eta beste bi Fermin eta Maddalen. Komikiaren azkeneko eszena antzeztuko dute; hau da: makina geratu, eta Fermin eta Maddalen makinatik ateratzen direnean, dinosauroekin topo egingo dute. Esaldi hau esan behar dute: *Begira, Fermin, dinosauroak!*; *Begira, Maddalen, dinosauroak!* Baina hori, harrituta edo beldurtuta irakaslearen aginduari jarraituz.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

5. JARDUERA	**KOMIKIAREN ANTZEZPENA ETA ALDAERAK**

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.11 Euskara ohiko komunikazio-eremu eta egoera gehienetan erabiltzea, euskararen normalizazio eta euskal kulturaren transmisio-prozesuetan aktiboki parte hartuz.

1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (burututako lanen aurkezpena, gertuko gertaera eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) ahozko aurkezpen sinpleak egitea eskainitako jarraibideen laguntzaz.

1.12 Ahozko literaturako hainbat testu ezagutzea eta erabiltzea nork bere kultura-nortasuna eraikitzeko eta, testu horietako adierazpen baliabide batzuk aztertuz, ulermen eta adierazpen gaitasunak aberasteko.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.11.2 Euskararen erabilera eta normalizazioa, eta euskal kulturaren transmisioa helburu duten eskola eremuko jardueretan aktiboki parte hartzen du.

1.4.4 Zuzentasun onargarriarekin hitz egiten du, gelan landutako erabilera okerrak (hiztegia, morfosintaxia...) identifikatuz eta zuzenduz.

1.12.1 Literatura izaeradun testu edo testu zati motzak (olerkiak, abestiak, bertsoak, testu dramatikoak), tradiziozkoak nahiz egungoak, buruz ikasi eta ulertzeko moduan errezitatzen ditu.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, Talde txikian
MATERIALA	Antzezpenerako behar diren gauzak: denboraren makina, motxila bat, zerrenda…

AZALPENA

Jarduera honetan, komikian landutako hizkuntza-egoera berrietan, hau da, egunerokotasuneko egoeratan erabiltzea izango dugu helburu. Urtxintxako ipuinen antzezpen kolektiboen jarraipeneko jarduera gisa proposatu dugu.

- Jarri ikasleak bi taldetan, elkarri begira. Batzuk Fermin eta besteak Maddalen izango dira. Bi edo hiru aldiz komikia irakurriko dugu, pertsonaiak aldatuz. Era horretan, testua hainbat aldiz errepikatuko dugu, baina ikasleek pertsonaiak aldatuz egingo dute irakurketa.
- Ondoren, liburua irakurri gabe, ikasleei komikia antzezteko aukera emango diegu. Hizkuntza-maila egokia duten bi ikasle aukeratuko ditugu lehenengo, edo boluntario aurkezten direnak. Antzezpena aberasteko zuek egindako denboraren makina, motxila bat, zerrenda… erabili dezakezue. Istorioaren hariari jarraitzen dioten bitartean ez da beharrezkoa izango ikasleek liburuan azaltzen den testu bera errepikatzea. Testuaz gogoratzen ez badira, edo aukera berriak bururatzen ez bazaizkie, taldeari laguntza eskatuko diogu.
- Jarraitu binaka komikia antzezten ikasleen interesak irauten duen bitartean.
- Beste egun batean, ikasleei komikiaren antzeko istoriotxoa asmatu duzula esan. Komikiaren elkarrizketa oinarri hartuta, egunerokotasunean gertatzen zaizkien egoerekin lotutako beste elkarrizketa bat proposatuko diegu, ahal den neurrian ikasleen ekarpenak kontuan hartuta; adibidez:

  GOAZEN HONDARTZARA
  - *Kaixo! Prest?*
  - *Kaixo, dena prest!*
  - *Ekarri al duzu hondartzara joateko behar duguna?*
  - *Bai, motxila hemen daukat. Bainujantziak, toalla, buzeatzeko betaurrekoak eta paipoa hartu ditut.*
  - *Ez al duzu olatuen artean ibiltzeko beldurrik?*
  - *Bai, zera!*
  - *Aurrera! Trena hartzeko tiketak poltsikoan ditut, eser gaitezen.*
  - *KANKA!*
  - *Ondo al zaude? Bai, baina buruan mina hartu dut.*
  - *Zer gertatu ote da?*
  - *Begira, behia dago trenbidearen erdian. Trenak galgari eman dio.*
- Elkarrizketa horrekin, komikia antzezteko egin dugun prozesu bera errepikatuko dugu. (Prozeduraren lehenengo hiru urratsak). Horretarako, irakasleak idatziz emango die elkarrizketa bi taldetan irakurtzeko.
- Hurrengo urratsa, irakaslearen ereduari imitatuz, egoera berria asmatzea izango da. Horretarako, talde handian irakaslearen eredua aztertuko dugu, aldaketak non egin daitezkeen ikusteko. Ikasleei bururatzen zaizkien beste aukerak arbelean idatziko ditugu.
- Ikasleak talde txikietan (bi edo hiru lagunekoak) jar ditzakegu, egoera berriak asma ditzaten. Asmatutakoa besteei antzezteko aukera emango diegu.
- Irakasleak elkarrizketa horiek idatziz jasotzen baditu, ikasleentzat oso motibagarria izaten da, azpian sinatzea eta etxera eramatea. Horretarako, ikasleek asmatutako istoriotxoak, irakasleak idatziz jaso, garbira pasa, kopiak egin eta banatu egingo ditu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

6. JARDUERA	**ZER DAKIZU DINOSAUROEI BURUZ?** (Ikusi *Elkarrizketaren kudeaketa* dokumentua)

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) deskodetzea eta bere esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.

4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetza eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzeko interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.

4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Talde txikian/Bakarka
MATERIALA	Liburua, 6. or.

AZALPENA

- Sekuentzietara jo aurretik, ikasleek **gaiari buruz dakitena plazaratu**ko dugu. Seguru asko, haurrek guk baino askoz gehiago jakingo dute dinosauroei buruz. Beraz, ezertan hasi aurretik, gaiari buruzko aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu. Oso garrantzitsua da kontuan hartzea ikasleen arteko eztabaidarako unea dela, eta ez erantzun guztiak ematekoa.
- Lehenengo aldia da gure ikasleek kontzeptu-mapa osatzen hasiko direna, baina kontzeptuak eta euren arteko loturak nola adierazten diren, ez diegu oraingoz azalduko. Izan ere, unitatearen bukaeran denon artean kontzeptu-mapa osatuko dugu eta, orduan, izango dugu aukera kontzeptu-mapa era xume-xumean lantzeko. Beraz, une honetan, ezta bukaeran ere, **ez gara kontzeptu-mapen eraikuntza sistematikoa irakasten ari.**
- Ezertan hasi aurretik, liburuko **orrialdearen behaketa** bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz. Goian eta ezkerrean azaltzen den galderaren esanahia eta galdera ikurra, orrialdearen erdialdean azaltzen den txartela, lauki horietan dauden testuak eta marrak dituzten lauki grisak.
- Ikasleak **launaka** jarriko ditugu eta dinosauroei buruz jarduteko minutu batzuk eskaini ondoren, dinosauroen inguruko galdeketa bat antolatuko dugu.
- Irakasleak lehenengo **galdera** idatziko du arbelean, hitz gakoa azpimarratuz. Ikasleek galdera beren liburuetan identifikatu eta hitz gakoa biribilduko dute. Beharrezkoa balitz, marrazki bat egin dezakete hitz gakoaren ondoan galderaren esanahia gogoratzeko.
- Ondoren, irakasleak talde guztiei galdera luzatuko die. Ikasleek, orduan, denbora-tartea izango dute beren artean **erantzuna** adosteko. Erantzuna ez badakite, egokitzat har daitekeen hipotesia asmatu behar dute. Talde guztiek txandaka, talde txikian adostutakoa talde handian plazaratuko dute. Bukatzeko, haurrek banaka edo binaka beren liburuetan taldean entzundakoa edo beraiek pentsatzen duena idatziko dute. Beraz, ikasleek hitzak edo hitz parea idatziko dituzte. Bikoteak egiterakoan, idazketa-maila antzekoa duten ikasleak elkarrekin jartzea komeni da. Bestela, ikasle batek bestea tutorizatzeko arriskua dago. Idazketa alfabetikora iritsi ez diren ikasleen produkzioak tarteka, ahal den neurrian, transkribatzen jarraituko dugu.
- Galdera guztiekin prozesu jakin bat bideratuko dugu. Galdera irakurri, hitz gakoa biribildu, galdera luzatu talde txikiei, talde txikietan erantzunak adostu, talde bakoitzeko erantzuna entzun eta banaka edo binaka erantzunak idatzi. Talde txikietan dauden bitartean, irakaslea inguruan ibiliko da zer dakiten eta zer interesatzen zaien identifikatzeko lanetan.
- Bukatzeko, **idatzi ez dugun zerbait** ote dakiten galdetuko diegu. Ikasleen ekarpenak arretaz entzun eta positiboki baloratuko ditugu.
- Liburua itxi aurretik **txoko zuriaren** ikurrari erreparatuko diogu. Zertarako? Gehiago ikasteko eta gehiago jakiteko.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

7. JARDUERA	**DINOSAUROEN TXOKOA** (Ikusi *Espazioaren antolaketa* dokumentua)

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.

2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.6.3 Hitzezkoak ez diren elementuen eta testu-ezaugarri batzuen (irudiak, tipografia, espazioaren banaketa...) esanahia egoki interpretatzen du.

2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak…) erabiltzen ditu.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Liburua, 6. or; gurasoei zuzendutako gutuna; gaiaren inguruko materiala eta gaiaren inguruko materiala ikusgai jartzeko mahaia eta marrazkiak; posterrak, argazkiak e.a ikusgai jartzeko kortxoa edo panela. Bestalde, ahal izanez gero, plastikozko dinosauroak eta horiek izendatzeko etiketak.

AZALPENA

Gela antolatzerakoan, “txoko zuria” deitu genion espazio bat gordetzeko proposatu genizuen. Txoko zuri hori unitate bakoitzaren gaiaren inguruan antolatuko dugunez, oraingo honetan dinosauroen txokoa bihurtuko dugu. Beraz, dinosauroen txokoa antolatzen hasiko gara.

Ikasleekin batera izenburua idatzi, apaindu eta zintzilikatuko dugu. Bestalde, irakasleak, ekarritako zerbait txokoan kokatuko du, ikasleek txokoaren izaera irudikatzen has daitezen. Hainbat material jarri dezakegu txokoa osatzeko: gaiaren inguruko liburu espezifikoak, ipuinak, posterrak, panpinak, bildumak, kromoak, marrazkiak, DVDak, berriak, parke tematikoei buruzko informazioa, etab.

Txoko horretara hainbat hizkuntzetan argitaratutako materiala etorriko zaigu, dudarik gabe. Gaztelania lantzeko premia duzuen tokietan, ikasleek ekartzen dituzten ipuinez, bideoez... balia zaitezkete proposamena indartzeko. Ingeleseko kasuan beste hainbeste egin daiteke.

Gurasoei eskutitz bat idatziko diegu Poxen eta Urdintxoren izenean, landu behar dugun gaia agertzeko eta materiala eskatzeko. Gogoratu, etxera bidali aurretik guztion artean gutuna irakurri behar duzuela. Gutun hori gidaren bukaeran aurkituko duzue. Irakasleak ziurtatu beharko du txokoa ondo hornituta dagoela, batez ere, taldeka lana egiteko talde bakoitzeko informazio-liburu bat dagoela ziurtatuko du. Beraz, ikasleek ekartzen ez duten materiala ikastolak eskuratuko du, edo beste geletara ekarritakoa bilduko dugu, hainbat jarduera egiteko orduan.

Irakasleok ikasleak materiala ekartzera eta aurkeztera animatuko ditugu. Era horretan, ekarritako materiala besteen eskura jarriz eta azalduz, txokoa eraikitzen parte hartuko dute. Irakaslearen lana, kudeaketa erraztuko duten tresnak eskaintzea eta lanen jarraipena egitea izango da. Ikasleek berriz, materiala ekarri, proposatzen den jardueraren arabera baliatu eta aurkezpenak egingo dituzte.

Oraingo honetan gelara ekarritako dinosauroei izena jar diezaiekegu. Horretarako, dinosauroen irudiak liburuetan aurkitu eta argazkien edo irudien azpian azaltzen diren testuak irakurri eta txarteletan idatzi beharko dituzte. Aurrerago, 18. jardueran, baliatuko dugu dinosauroak izendatzeko egin dugun lana.

Bestalde, ikurra liburuan ikusten dugun bakoitzean, dinosauroen txokora joko dugu, informazio bila, eta halaxe jakinaraziko diegu ikasleei.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

8. JARDUERA	**BIRRAITONAREN MUSEOA** 1 CD-ROM (Ikusi *Txoko zuria* dokumentua)

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) deskodetzea eta bere esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.

1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.

4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetza eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzeko interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.

1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta... entzuketak, irakurketa txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.

4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Bakarka/Binaka
MATERIALA	Liburua, 7. or.; CD-ROMa, proiektagailua eta ordenagailuak

AZALPENA

Maddalenek, Ferminek, Urdintxo eta Poxek, CD-ROMa erabiliko duen haurraren laguntzaz, birraitonaren ametsa betetzea dute helburu, museo bat eraikitzea, alegia. Birraitonaren *Denboraren makina* konpondu dute, eta denboran eta espazioan barrena hainbat bidaia eginez, informazioa bilduz eta jarduera asko eginez, museorako piezak eskuratuko dituzte. Jarduera honen bitartez, CD-ROMa ezagutu eta lehen bidaiari hasiera emango diogu.

- Ikasleei liburuaren orriari behatzeko minutu batzuk eskaini ondoren, lehengo bidaiaren inguruko olerkia irakurriko dugu. Proiektatu edota arbelean idatzi. Berriz ere, irakasleak irakurriko du. Ondoren, irakaslearen eskutik, talde handiko irakurketa egingo dugu. Olerkiaren artxiboa Proiektatzeko artxiboa Txanela.net-en aurkituko duzue, 36. jardueran edo bestela, Liburu digitala erabili, olerkia bertan aurkituko duzue proiektatzeko moduan.
- Galderak eginez, olerkiaren esanahiaz jabetuko gara; adibidez, *Sartu barrura dionean non sartzen ari gara? Zergatik dio "atzera, atzera, atzera" eta ez "aurrera, aurrera, aurrera"? Ausartuko al zinatekete diplodoko baten bizkar gainera igotzen?*
- Kodeaz hausnartzeko, egin daitekeen behaketa, hauxe da: irakasleak bertsoan idatzita azaltzen den hitz bat non ote dagoen asmatzeko eskatuko die ikasleei. Testu ezagun batean hitza ezagutzeko jarduera hau, batez ere, irakurketa-idazketa prozesuan motel dabiltzanekin tarteka egitea aholkatzen dugu.
- Ondoren, Maddalenen globoa irakurriko dugu denok elkarrekin. Neskatxaren aholkuari jarraitu aurretik, hau da, CD-ROMa erabili aurretik, liburuko irudiei behatu eta iruzkinak egingo ditugu. Elkarrizketetan egin ohi dugunez, ikasleen interesei jarraituz, sortzen diren ideiak bideratu eta antolatuko ditugu. Adibidez?
- Zertarako da liburuan azaltzen den diskoa? Ordenagailuan sartuz gero, denboraren makina martxan jarri eta joko pila bat egiteko aukera izango dugu. Zer joko azalduko dira pantailetan? Aitonarekin sotoan letrekin jolastu, bideoak ikusi, musika entzun eta grabatu, eta, jakina, museorako piezak lortzeko frogatxoak egin.
- Ordenagailua piztu aurretik ikasleei galdetuko diegu: *Baina zer egin dezakegu denok jolasteko, gelan bi ordenagailu baino ez baditugu?* Ikasleen iritziak entzun ondoren, Ferminen globoa irakurri eta azpian dagoen txandak antolatzeko tresna aztertuko dugu. Egokia irudituz gero, antzeko taula bat erabil dezakezue. Horrelako tresnen bitartez, taldearen lana era autonomoan kudeatzeko proposamenak luzatzen dizkiegu ikasleei. Bestalde, taula baliatzeko izenak irakurtzea ezinbestekoa denez, irakurtzeko beharra sortzen da.
- Orain bai, ordenagailua piztuko dugu. Ikasle guztiek CD-ROMa erabiltzeko gogoa izango dutenez, informatika-gelara joan gaitezke. Beharbada, pantailetan eta jokoetan aurrera eta atzera ibiltzeko eguna duzue gaurkoa, hau da, ikertu, probatu eta beren interesen araberako aukeraketa egiteko eguna. Hala ere, gaur bertan edo beste egun batean, proiektagailua piztu eta denek batera, talde handian, jokoaren nondik norakoak irakasleak azalduko ditu.
- Bukatzeko, CD-ROMean dagoen denboraren makina ezagutu ondoren, une egokia izan daiteke, *Denboraren makina* abestia elkarrekin abesteko.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

9. JARDUERA	**NOLA DAKIGU EXISTITU ZIRELA?** (Ikusi *Txoko zuria* dokumentua)

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.7 Irakurketa helburuari erantzuteko informazioa aurkitzea eta aukeratzea, eskueran jarritako informazio-iturriak erabiliz.

1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.

2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.

3.4. Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.

4.4 Hainbat testuingurutan, proposamen jakin baten arabera, prozesuan egindako ikasbideaz jabetzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.7.1 Erantzun zehatzeko galderei erantzuteko informazioa aurkitzen du eskainitako testuetan.

1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) kodetzean aurrerapenak eginez.

2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak…) erabiltzen ditu.

3.4.8 Materialak manipulatuz eta aztertuz gozatzen du.

4.4.2 Aprendizaia-prozesuaren hainbat unetan egindako lanak era gidatuan eta elkarlanean alderatuz, aurrerapena balioesteko gai da.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Binaka/Bakarka
MATERIALA	Liburua, 8. or.; fosila(k); fosilei buruzko informazio idatzia dinosauroen txokoan; buztina eta bertan irudiak lortzeko materialak

AZALPENA

Jarduera honetan ikerketatxo bat proposatuko diegu ikasleei. Horretarako, galdera bat egingo diegu: *Nola dakigu dinosauroak existitu zirela?* Hasierako hipotesiak idatziz jasoko ditugu. Beren ohiko erantzunak honelakoak izan ohi dira: *Filmetan ikusi dudalako. Liburu batean irakurri dudalako. Gurasoek esan didatelako*. Baina nola dakite gurasoek, liburua idatzi dutenek edo filma egin dutenek dinosauroak existitu zirela? Ondoren, esperimentazioaz, argazki baten behaketaz eta dinosauroen txokoko liburuetako informazioaz baliatuko gara gure iritziak egiaztatzeko eta ezagutza eraikitzeko.

HIPOTESIAK

- Ezertan hasi aurretik, haurrei izenburuko galdera zuzenduko diegu: *Dinosauroak existitu ziren? Nola dakigu dinosauroak existitu zirela?* Haur bakoitzari galdera horiei ahoz erantzuteko aukera emango diogu. Esaldiak osatzen lagunduko diegu. Izan ere, liburuan idatziko dutenaren ahozko planifikazioa egiten ari gara.
- Ikasle bakoitzari bere iritzia idazteko eskatuko diogu. Horrela, gure ikerketatxoa egin ondoren, hasierako iritzia eta bukaerako ondorioa alderatuko ditugu. Jarraitu aurretik esango diegu "Liburuak hainbat lan proposatzen dizkigu erantzun egokia zein den jakiteko. Beraz, has gaitezen!"

ESKULANA

- Liburuari helduko diogu hurrengo ariketaren, argibideak talde handian irakurri eta esanahia argitzeko. Aztarnak uzteko prozesua argazkitan aztertu eta geuk egingo dugu.
- Plastilina edo buztina eta irudiak lortzeko materialak erabiliz, haurrek argazkietan agertzen den prozesua egingo dute. Hasteko, buztin zati txikiak hartu esku ahurrean maneiatzeko modukoak. Bolatxoak egin eta esku ahurrez zanpatu, nahi ditugun zantzuak utziz (hatz-markak, azkazalak...). Horrela, buztina erabiliz, zanpatuz, moztuz, bolatxoak eginez... nolakoa den, bere ezaugarriez (plastikotasuna e.a.) ohartuko gara. Komeni da, bide batez, horri buruz hausnartzea.
- Buztinezko xafla bat eginez hasiko gara. Horretarako, marko baten antzekoa den egurrezko molde karratua erabiliko dugu (13x13 cm+-). Mahai baten gainean oihal bat ipini eta bertan moldea kokatu. Landutako buztin zati txikiak hartu eta presioa eginez bata bestearen kontra jarri moldea bete arte. Ez da komeni behar baino gehiago buztin jartzea. Ondo zanpatu dena eta ondoren, arrabola pasa gainetik buztina batu eta berdintzeko. Kontutan hartu barruan haize-bolak geratzen badira, laberatzeko ordua, horretarako asmorik eta aukerarik baduzue behintzat, erabat hautsi egingo dela pieza. Soberan dagoen buztina kendu, arraspa bat erabiliz, eta falta den lekuetan ipini guztia ondo berdindu arte. Moldeari buelta eman eta prozedura bera errepikatu alde bietatik behar bezala geratu arte.
- Moldeari kolpetxo batzuk emanez, buztin-xafla atera bertatik. Orduan, has gaitezke gaur egungo arrastoak ipintzen. Horretarako, edozein objektu erabiliz (boligrafoa, giltzak, oihalak, oskolak, adarrak, hostoak...), ebakidurak egin xaflan ehundura berriak lortuz. Xaflak lehortzen utzi eta ahal izanez gero, laberatu. Aurkezteko, xafla guztiak euskarri (ohol) batean itsatsi (silikona) eta mural bat (edo gehiago) egin daiteke.
- Eskulana bukatu ondoren, egindako prozesuari buruzko hausnarketa egingo dugu, denbora-antolatzaileak erabiliz, urratsak ordenatuz eta aztarna nola sortu den berbalizatuz. Adibidez: *Hasieran buztina eta giltza hartu ditugu. Ondoren, giltza buztinaren gainean jarri dugu indarra eginez. Bukatzeko, giltza kendu dugunean, giltzaren aztarna azaldu da buztinean.*

ARGAZKIA BEHATZEA

- Jarraian liburuari helduko diogu, berriz ere. Ikasleak talde txikietan elkartu (hiruzpalau lagun) eta liburuan azaltzen den galderari erantzuteko eztabaidatu dezatela. *Zer gertatu da harri honetan? Ba al du zerikusirik gure eskulanean gertatu denarekin?* Ondoren, talde guztien erantzunak entzun, bildu eta bideratu egingo ditugu.
- Beraz, harri horiek garrantzitsuak al dira dinosauroak existitu ziren edo ez jakiteko? Galdera horien erantzunaren bila edo hipotesiak egiaztatzera joko dugu dinosauroen txokoko liburuetara edo Internetera.

ONDORIOAK

Aztarna horiek dinosauroen txokoko liburuetan bilatuko ditugu. Irakasleari liburuak emango dizkiote, aztarna horiek azaltzen diren tokian irekita. Liburuan dagoen informazioa azaldu edo irakurriko diegu ikasleei. *Guk egindako eskulanean gertatu den bezala, dinosauroek aztarnak utzi zituzten harrietan. Aztarna horiei fosil deitzen zaie. Aztarnei esker badakigu dinosauroak existitu zirela.*

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

10. JARDUERA	**"DINOSAUROEN BILA" ABESTIA**

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) deskodetzea eta bere esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.

3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzeko interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.

3.2.2 Abesti errazak aho batez interpretatzen ditu eta buruz ikasten ditu.

3.2.8 Ahozko adierazpenarekin, musika-tresnen adierazpenarekin eta gorputz-adierazpenarekin gozatzen du eta dagokionean sentimenduak adierazten ditu.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Liburua, 9. or.; abestien CDa

AZALPENA

- Fosilekin jarraituz, *Dinosauroen bila* abestia eta dantza ikasiko ditugu.
- Lehenik eta behin CDa (edo liburu digitala) jarriko dugu, ikasleek abestia entzun dezaten.
- Irakasleak galdetuko die ea abestia ikasi nahi duten. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, musikarik gabe ikasleek hitzak esaldika errepikatuko dituzte. Horren ostean, berriro errepikatuko dituzte esaldiak musikarekin. Esaldiak keinu jakin batekin lotuz gero, dantza polit bat egin genezake. Horrela, hitzak hobeto gogoratuko dituzte.
- Abestia ikasi ondoren, liburuan irakurriko dugu. Tartetxo bat eskainiko diegu ilustrazioak eta testua begiratu/irakurri dezaten. Testua irakurtzen hasi aurretik, ilustrazioek haurrak pentsatzen jartzeko ematen diguten aukera balia dezakegu honako galdera hauen bitartez: *Fosilen inguruko abestia bada, zergatik azaltzen dira marrazkietan pala eta hezurra?*
- Kodearen inguruko behaketa zehatza bultzatuko dugu. Oraingoan **F** letrari erreparatuko diogu. Testuan azaltzen diren **F** letrak margotu eta zenbatuko ditugu. **F** letra duten hitzak zerrendatu ditzakegu *snap* jokoa egiteko (ikusi kontzientzia fonologikoa garatzeko jokoak).
- Gelakide gehienak kezka ortografikoa azaltzen badute, <(i)ll>ahoskatzean <il> letraz idazten dela landuko dugu. Abestia proiektatu edo arbelean idatz dezakezue.
    - Ikusten al duzue beti era berean bukatzen den bukaeraren bat?
    - Zein letraz bukatzen da... HILAK / BILA / PILA / FOSILAK?
    - Hitz horiek ondo idatzita daudela iruditzen zaizue?
    - Bururatzen al zaizkizu era berean bukatzen edo hasten diren hitzak? MAKILA, MILA, ABANTAILA, NOZILA, BILA, BOTILA, ILARA, ILARRA, ILARGIA, HILABETE…
    - Beraz, euskaraz nola idazten da <(i)ll>soinua?

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

11. JARDUERA	**HOTZA ALA BEROA?**

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.11 Euskara ohiko komunikazio-eremu eta egoera gehienetan erabiltzea, euskararen normalizazio eta euskal kulturaren transmisio-prozesuetan aktiboki parte hartuz.

2.5 Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.11.1 Eskola-inguruko komunikazio-eremuetan gertatzen diren pertsonen arteko harremanetan euskara erabiltzen du.

2.5.1. Gelako kideen arteko harremanetan parte hartzen du.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Plastikozko dinosauro-panpinak eta klabeak

AZALPENA

Abestiak dioen bezala, dinosauroen bila ari garen honetan, jolas txiki bat egingo dugu.

- Lau haurrei gelatik ateratzeko eskatuko diegu. Talde txikia baldin baduzue, lagun bakarra atera daiteke gelatik. Taldea handia bada, banaka eginez gero, berehala aspertuko dira.
- Irakasleak plastikozko dinosauro-panpina bat ezkutatuko du.
- Kanpoan dauden ikasleei gelara sartzeko eskatuko diegu. Eskutik helduta sartuko dira, bilatzen ari diren objektutik denek distantzia bera mantentzeko. Gelan ezkutatu dugun panpina aurkitu behar dutela adieraziko diegu. Beraiek bilatzen duten bitartean, irakasleak klabeak edo txaloak joko ditu dinosauroa aurkitzen laguntzeko. Klabeak apal-apal joz gero, panpina urruti dagoela adieraziko dugu. Zenbat eta ozenago jo, orduan eta hurbilago dago!
- Txanda bakoitzean talde bakarra ibiliko da dinosauroen bila. Hasieran irakasleak zuzendu dezake jolasa, baina ulertu bezain laster, haurrek gidatuko dute. Haur batek, irakasle lanetan, ezkutatuko du panpina, eta klabeak joko ditu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

12. JARDUERA	**ABESTIA TXUKUNTZEN**
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz. **1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) deskodetzea eta bere esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.**	
EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)	
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzeko interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. 1.8.3 Testua egoki aurkezten du: kaligrafia irakurgarri eta eraginkorra, emandako marjinak eta marrak, idazpuruak...	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Binaka/Bakarka
MATERIALA	Lan-koadernoa, 12. or.
AZALPENA	
Ikasi dugun abestia hainbat zatitan banatuta agertzen zaigu fitxa horretan. Ikasleek zati bakoitzean jartzen duena irakurriz, edo arrastoak kontuan hartuta, abestia ordenan kopiatuko dute. Lehenik eta behin, abestia elkarrekin abestuko dugu. Talde handian zatiak desordenaturik irakurriko ditugu eta binaka ordenatzeko eskatuko diegu ikasleei. Zatiak ordenatzeko, esaldien ezkerraldean zenbakiak jartzeko eskatuko diegu. Agian, denok elkarrekin bilatu dezakegu lehenengo zatia, irakurri gabe, arrastoak bilatuz, ikasle makalei laguntzeko. Ariketa banaka egin beharrean, binaka egitea proposatzen dizuegu. Betiere, antzeko maila duten ikasleekin osatuko ditugu bikoteak, ikasleen arteko eztabaida sortzeko. Bestela, ikasleen arteko maila oso ezberdina bada, batek bestea tutorizatuko du, eta gehien dakienak dena egiteko arriskua izango da. Zenbakien bitartez esaldiak ordenatu ondoren, irakasleak ziurtatu beharko du zenbakiak ondo jarrita daudela. Azkenik, ikasleek kopiatu ahal izango dute.	
HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…	

13. JARDUERA	**BIDEOA**

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaera eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) ahozko aurkezpen sinpleak egitea, eskainitako jarraibideen laguntzaz.

1.7 Irakurketa helburuari erantzuteko informazioa aurkitzea eta aukeratzea, eskueran jarritako informazio-iturriak erabiliz.

4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetza eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.7.1 Erantzun zehatzeko galderei erantzuteko informazioa aurkitzen du eskainitako testuetan. (dokumentu grafikoetan)

1.4.2 Gutxieneko koherentziaz (denbora sekuentzia errespetatuz) adierazten ditu ideiak.

4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde txikian/Talde handian
MATERIALA	Birraitonaren makina 1 (DVDa); gidaren bukaeran azaltzen diren argazkiak

AZALPENA

- Esan ikasleei animalien aztarnak aurkitzeko zer prozesu jarraitzen den azaltzen duen bideoa ikusiko dugula.
- Ikasleak talde txikian jarri (3 edo 4 lagun) eta gidaren bukaeran prozesuari buruz aurkituko dituzun irudiak eta irudi horiek ordenatzeko kartoi mehe bat eman talde bakoitzari. Bideo gelara joan aurretik, irudiak goitik behera ordenatzeko eskatuko diegu.
- Hasi bideoa ikusten eta gelditu ezazu, zure ustez, azpimarratzeko moduko tarteak azaltzen direnean. Hala ere, gogoratu helburua ez dela prozesua zehatz-mehatz ikastea.
- Ikusitakoaren arabera irudiak berriz ere ordenatzeko eskatuko diegu ikasleei. Blu-tack erabiliko dugu argazkiak kartoi mehearen gainean itsasteko. Horrela, eztabaidaren ondorioz irudien ordena erraz aldatu ahal izango dute.
- Talde guztien lanak arbelean jarriko ditugu. Haurrek taldeetan erabakitakoa denen aurrean agertuko dute. Prozesu baten adierazpena denez, gogoratu denbora-antolatzaileen erabilera bultzatzea beharrezkoa dela. Erantzunen zergatiak adierazterakoan, eztabaida bultzatuko dugu.
- Ordena egokia duen kartoi mehe baten kopiak egin ditzakegu, ikasle bakoitzak bere kopia izan dezan. Ondoren, dinosauroen txokoan jar dezakegu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

14. JARDUERA	**PROIEKTUAREN AURKEZPENA: DINOSAUROEN GARAIKO MAKETA** (Ikusi *Espazioaren antolaketa* dokumentua)

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Liburua, 10. or.

AZALPENA

Dinosauroen gaia landu bitartean informazioa bildu eta maketa eraikiko dugu. Maketa egingo dugula baliatuz, ikastolako haur eta gurasoentzat dinosauroen inguruko erakusketa antola genezake. Egindako maketaz gain, informazio-fitxak, marrazkiak, prozesuan egindako argazkiak, etxetik ekarritako liburuak, posterrak... erabil daitezke erakusketa osatzeko.

- Proiektua garbi edukitzea eta lana egiteko ideiak botatzea da gure gaurko lana. Aurrerago proiektua planifikatu, egin, komunikatu eta balioetsiko dugu.
- Esan ikasleei *Sorpresa* unitatean bezala proiektu bat egingo dugula. Gogora ekarriko dugu denboraren makina egiteko hainbat gauza egin genituela: proiektuaren aurkezpen-orriari behatu, krokisaren bitartez makina egiteko ideia berriak plazaratu, beharrezkoak ziren gauzak zerrendatu eta denon artean ekarri, makina eraikitzeko orduan hainbat lan banatu... Azkenik, makinari argazkiak atera genizkion eta egindako lanari buruzko iritzia liburuan idatzi genuen. Beraz, oraingoan antzeko prozesuari jarraituko dugu, maketa egiteko.
- Liburuak ireki, eman ikasleei denbora pixka bat proiektuaren orriari behatzeko. Ondoren, gidatutako behaketa egingo dugu.
- *Zuen ustez zertan ari dira argazkietako haurrak? Zertarako uste duzue ari direla liburuak irakurtzen, idazten eta plastilinarekin zuhaitzak egiten? Zuek egin duzue horrelakorik? Gustura ibili al zineten? Zer egin beharko genuke argazkian ikusten dena osatzeko?*
- Irudiak aztertu ondoren, Ferminek diona irakurriko dugu. Guztion artean maketa bat zer den argituko dugu.
- Gero, Maddalenek diona irakurriko dugu. Galderari erantzunez, interesgarria izango litzateke denon artean aurreikustea eta hitz egitea nolakoa izango den, zer material beharko dugun, zer elementu uste dugun jarriko ditugula, etab.

Liburuan proposatzen zaizuen lan prozedura maketa pixkana-pixkana gauzatzea da. Horrela lana egiteak, zentzua ematen dio egunerokotasunari, haurraren begietan.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

15 JARDUERA	**ZER JAKIN BEHAR DUGU MAKETA EGITEKO?** (Ikusi *Elkarrizketaren kudeaketa* dokumentua)

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.

4.2. Hainbat testuingurutan, lanaren plangintza egitea, proposamen jakin baten arabera ezarriko diren faseak arrazoituz.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.

1.3.2 Berak esandakoari buruzko galderak erantzuten ditu (azalpen zehatzagoa, informazio gehiago...).

4.2.1 Hainbat testuingurutan lanaren ekoizpen-prozesuaren antolaketa mailakatua, prozesua egiteko beharrezko baliabideen aurreikuspena, eta materialen eta tresnen aukeren azterketa egiteko gai da hasi aurretik.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Liburua, 10. or.; ikasnorabidea idazteko paper handia (1 m x 1,5 m inguru)

AZALPENA

Jarduera honetan, aldagai berri bat sartu dugu. Alegia, unitateak berak proiektuarekiko duen menpekotasuna tarteko, ikasi beharrekoak lotura hertsia du egingo dugunarekin. Beraz, proiektua egiteko, ustez, zer ikasi beharko dugun plazaratuko dugu jarduera honetan. Bestalde, badira unitatean zehar proiekturako ezinbestekoak ez diren hainbat jarduera, baina unitateari osotasuna ematen diotenak. Beraz, horiek ere kontuan hartu behar ditu irakasleak ikasnorabidea osatzerakoan. Tresna horrek, ondorioz, bi zati izango ditu: bat, **proiektua gauzatzeko jakin beharrekoak** eta bigarrena ikasleen interesei erantzuteko, gaia hedatzeko eta curriculumaren beharrak asetzeko ikasleek **ikasi edo jakin nahi dutena.** (Ikus jardueren zerrenda gidaren hasieran).

Erantzunak eta galderak **idatziz jaso**ko ditugu ikasleen begi-bistan egongo den poster handi batean, nola hala ikasnorabidea antolatuz. **Ikasnorabidearen** funtzioa eta helburua ikasleek ikasten ari direnaz jabetzea izango da. Landuko dutena aldez aurretik ezagutuz, zer, nola eta zertarako ikasiko duten, eta landu ostean, ikasitakoari beste zentzu bat emateko aukera izango dute. Beraz, joan-etorrian erabiliko dugun tresna izango da. Edozein une izan daiteke egokia ikasnorabidera jotzeko, egiten ari garenaz jabetzeko.

Ikasnorabideko bigarren atala, hau da, ikasleek ikasi nahi/behar dutena, gaia jorratzen ari garen bitartean garatzeaz gain, unitatearen bukaerako **kontzeptu-mapa** eraikitzeko ardatz moduan erabiliko dugu. Bukaerako lan hori osatzeko haurrak bizpahiru lagunez osatutako taldetan elkartuko ditugunez, komeni da orain aurreikustea talde bakoitzak ikasnorabideko galdera bati erantzuna eman beharko diola. Horren ondorio zuzena da, galdera kopurua eta talde kopurua bat izan daitezen ahalegintzea. Galdera kopurua ugaria bada, irakaslearen lana izango da galdera horiek multzokatzea, ideia nagusien arabera eta xehetasunak galdera horien azpiatal moduan hierarkizatzea. (Ikusi 39. jarduera)

Liburuaren orrian azaltzen den bezala, biribilean eseriko gara eta ikasleei bi galdera hauek luzatuko dizkiegu: *Zer ikasi behar dugu maketa egiteko?* eta *Zer ikasi nahi duzue dinosauroei buruz?* Ikasleei denbora-tarte bat isilean pentsatzeko utzi ondoren, beren ekarpenak idatziz jasoko ditugu. Esan bezala, irakaslearen lana izango da **galdera horiek multzokatzea** ideia nagusiaren arabera, eta xehetasunak galdera horien azpiatal moduan hierarkizatzea.

Unitatearen garapena zerbait moldatu beharko da, haurrek planteatzen dizkiguten interesen arabera. Nola nahi ere, gidaren hasieran, egileok proposatzen dugun ibilbidearen edo sekuentzi tematikoaren eskema daukazue. Beraz, **haurren ideiak horren arabera bideratu** eta antolatu ditzakezue.

HAUSNARKETA. **Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…**

16. JARDUERA	**PAISAIA ETA SUMENDIA** (Ikusi *Txoko zuria* dokumentua)

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) deskodetzea eta bere esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.

2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.

3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.

4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetza eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.

4.2 Hainbat testuingurutan, lanaren plangintza egitea, proposamen jakin baten arabera ezarriko diren faseak arrazoituz.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzeko interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.

2.9.1 Zuzeneko behaketaren bidez inguruko elementuak, gertakariak eta fenomenoak ezagutu eta identifikatzeko, konparatzeko… interesa eta jakin-mina du.

2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak…) erabiltzen ditu.

3.4.8 Materialak manipulatuz eta aztertuz gozatzen du.

4.1.3 Taldekideekin berdintasunez eta errespetuz aritzen da lankidetzan.

4.2.1 Hainbat testuingurutan lanaren ekoizpen-prozesuaren antolaketa mailakatua, prozesua egiteko beharrezko baliabideen aurreikuspena, eta materialen eta tresnen aukeren azterketa egiteko gai da hasi aurretik.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Talde txikian
MATERIALA	Liburua, 11. or.; dinosauroen paisaiaren inguruko irudiak edo informazio-liburuak; sumendia egiteko materiala (ikus liburua 11); maketa egiten hasteko mahai handi bat edo kartoizko kutxa; zilar-papera, plastilina, enbalatzeko papera, harriak eta hostoak

AZALPENA

PAISAIA

- Egin ditugun fosilak eta egingo ditugun arrautzak, plastilinazko dinosauroak, informazio-fitxak, horma-irudiak, etab. maketan bertan edo maketaren ingurua osatzeko erabiliko dugu. Baina hori egin aurretik, **paisaia eraiki** beharko dugu. Izan ere, euskarri horretan jarriko ditugu pixkana-pixkana egindakoak. Horretarako, mahai baten gainean edo lurrean bertan, kartoizko kaxa handi baten bi solapa elkartuta hartuz gero eta L moduan jarriz, behekoaren gainean maketa eraiki eta bertikalki dagoena pintatuz eta apainduz zerua edo paisaiaren atzealdea bilaka dezakezue.
- **Maketa gela barruan edo kanpoan** koka daiteke. Barruan jarriz gero, guk gonbidatzen ditugun pertsonek baino ez dute ikusiko. Kanpoan berriz, ondotik pasatuko diren guztiek ikusteko aukera izango dute. Maketa-erakusketaren ondoan, egindako lanaren inguruko iritziak jasotzeko postontzi moduko kutxa jar daiteke. Kutxaren gainean, maketa ikusten dutenak iritzia ematera animatuko dituen oharra jartzeaz gain, paper zuriak eta arkatzak utziko ditugu.
- Liburua ireki bezain pronto, **dinosauroen txokora** joateko oharra irakurriko dugu. Etxetik ekarritako liburuetan dinosauroen garaiko paisaia nolakoa zen ikusiko dugu talde txikietan (hiruzpalau lagun). Talde bakoitzari pasaian jarriko lituzketen elementuen zerrenda egiteko eskatuko diogu. Gogoratu, betiere, antzeko maila duten ikasleak elkarrekin jartzea komeni dela, batzuk besteak tutorizatu ez ditzaten. Talde txikiko lan hori bideratzeko, taldeko kide bakoitzari eginkizun bat emango diogu. (Ikusi lehenengo jardueran deskribatzen den rolen banaketa)
- Ondoren, talde handian, gure **maketan jarri nahi ditugun elementuak** eta horiek irudikatzeko behar dugun materiala zerrendatuko ditugu arbelean. Irakasleak berak idatzi dezake edo idazkari-lanak egingo dituzten ikasle batzuk aukeratu daitezke, talde txikietan, esandakoak idatziz arbelean zerrendatzeko.

ZER DAGO PAISAIAN?	ZER BEHAR DUGU?	NORK EGINGO DU?
Zuhaitzak	Plastilina eta adarrak	Urtzi, Uxue eta Oihan
Ibaia	Zilar-papera	Udane, Udanea eta Haritz
Mendiak	Enbalatzeko papera	Maitane, Goiatz eta Markel
Harriak	…	…
Hostoak	…	…

- Guztion artean paisaia non jarriko dugun erabaki ondoren, egin beharreko **lanak ikasle guztien artean banatu** eta paisaia prestatzen hasiko gara.
- Gero, dinosauroen garaian ohikoak omen ziren sumendien erupzioa irudikatuko dugu.

SUMENDIA

- Sumendiak egiteko prozesua **denen aurrean irakasleak** egitea izango litzateke onena, eta gertatzen denari buruz hitz egitea.
- Biribilean eseriko gara. Norberak bere liburua aurrean izango du eta irakasleak minutu batzuk emango dizkie ikasleei liburuko orriari behatzeko.
- Instrukzio-testuetan azaltzen diren bi elementuak bereizten lagunduko diegu ikasleei, alegia, behar den materiala eta jarraitu beharreko urratsak.
- Sumendia egiteko behar den **materiala** talde handian irakurriko dugu. Irakasleak oihal baten azpian ezkutatuko du materiala eta ikasleek irakurri orduko gauzak banan-banan erakutsiko ditu. Zerrendak egiteko orduan gidoi edo buleten erabileraren beharra azpimarra dezakegu.
- Ikasleen irakurketa-mailaren arabera, irudien azpiko testua **irakurtzeko** edo testuen gainean dagoen irudian gertatzen ari dena **interpretatzeko** eskatuko diegu. Aginduak poliki-poliki beteko ditu irakasleak ikasle guztien aurrean. Prozesua ordenatzeko letren eta **denbora-antolatzaileen** erabilera azpimarratzeko modukoak dira.
- Ura, xaboia eta fruta-gatzak nahasterakoan sortzen den erreakzioa ikusteko nahasketa edalontzi batean egin dezakegu, sumendia egin ondoren.
- Bukatzeko, sumendia maketan jarriko dugu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

17. JARDUERA	**OLERKIA: SUMENDIAK**

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) deskodetzea eta bere esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.

1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzeko interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.

1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta... entzuketak, irakurketa txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Irakurgaiak, 24. or.

AZALPENA

Maketak egiterakoan sumendiak egin ditugunez, sumendiaren inguruko hitz-joko polit hau irakurriko dugu.

- Eman denbora ikasleei binaka orrialdeari behatzeko eta, ahal duten neurrian, irakurtzeko.
- Erritmoa markatzeko irakasleak lehenengo hitz-jokoaren lehenengo bi lerroak irakurriko du.
- Ikasleek, liburua aurrean dutela, hitzak errepikatuko dituzte erritmo berarekin.
- Irakasleak hurrengo bi lerroak irakurri, eta ikasleek berriro errepikatuko dituzte.
- Testu bakoitzean dauden onomatopeiak zeri dagozkien galdetuko diegu haurrei, eta soinua imitatzen saiatuko gara.
- Prozedura bera jarraituko dugu beste hitz-jokoekin
- Bukatzeko, irakasleak testu guztiak irakurriko ditu eta ikasleek entzungo dituzte. Bozketa bidez, gehien gustatu zaiguna aukeratu eta irakurriko dugu denok elkarrekin.
- Kodea landu nahi izanez gero, errimei behatuko diegu eta berdin bukatzen diren hitzak asmatzera jolas gaitezke.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

18. JARDUERA	**NOLAKOAK ZIREN ETA ZER JATEN ZUTEN?** (Ikusi *Txoko zuria* dokumentua)

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.

2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.

4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetza eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

3-4-8 Hizkuntza idatziaren eraikitze prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (fonemak-grafia, hitzak,perpausak, paragrafoak…) kodetzean aurrerapenak eginez.

2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak…) erabiltzen ditu.

4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.

4.1.3 Taldekideekin berdintasunez eta errespetuz aritzen da lankidetzan.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Binaka/Bakarka
MATERIALA	Liburua, 12-13. or.; dinosauroei buruzko informazioa dinosauroen txokoan; koloretako zintak, soka, plastilina eta ikasleen material osagarria

AZALPENA

Oraingoan dinosauroak beste bi irizpideen arabera aztertuko ditugu: elikadura eta tamaina.

ELIKADURA

- Lehenbizi, animalia **belarjalea eta haragijalea zer den denon artean argituko** dugu, hitzak definituz eta gaur egungo animalien adibideak jarriz. Irakasleak dinosauroen txokotik hainbat dinosauro haragijaleren eta belarjaleren irudiak hartuko ditu. Irudien behaketan oinarrituta (hortzak, atzaparrak, tamaina, hankak...), ikasle taldea honako ondorio hauetara iristen saiatuko gara:
  - Dinosauro belarjaleak baketsuak ziren eta gehienak lau hankan ibiltzen ziren.
  - Dinosauro haragijaleak, arriskutsuak ziren, eta bi hankan ibiltzen ziren.
- Irakasleak arbelean bi kartoi mehe jarriko ditu. Kartoi mehe batean DINOSAURO BELARJALEAK eta betean DINOSAURO HARAGIJALEAK idatziko du. Ikasleei azalduko diegu bi multzo egingo ditugula, eta multzo bakoitzean dinosauroen izenak idatziko ditugula. Lan hau maketaren inguruko erakusketa aberasteko erabiliko dugu.
- Ikasleak binaka jarri eta **dinosauroen txokora** bideratuko ditugu. Horretarako, irakasleak ezinbestean aurreikusi behar ditu baliabideak. Gela erdiak dinosauro haragijaleen izenak aurkitu beharko ditu eta beste erdiak belarjaleen izenak. Izen horiek txarteletan idatziko dituzte eta dagokien multzoan kokatuko dituzte. Multzoak osatu ondoren, talde bakoitzetik bost izen idatziko dituzte beren liburuan. Liburuak baliatu beharrean, dinosauroen txokoko panpinak erabili ditzakezue. Izan ere, 7. jardueran izena jarri zenieten, beraz, panpinekin bi multzo egin eta zintzilik dituzten kartoi mehetan idatzitako izenak kopia ditzakete.
- Bukatzeko, bikote bakoitzak dinosauro bat aukeratuko du bere ezaugarrietan sakontzeko. Hala ere, bilduman dinosauro batzuk askotan errepikatuta ager ez daitezen, lehenik eta behin, talde edo haur bakoitzak zein dinosauro aukeratzen duen adostea komeni da.
- Behaketaren ondorioz lortuko duten informazioa **material osagarrian aurkituko duzuen fitxan** idatziko dute. Horrez gain, irudietan behagarri diren bi ezaugarri idatziko dituzte; adibidez: HORTZAK ZORROTZAK DITU, HIRU ADAR DITU, LEPO LUZEA DU.
- Marrazkia egin ondoren, bikote bakoitzak fitxa egiteko aukeratutako dinosauroa **plastilinaz egiten** hasi daiteke.
- Gai honen inguruan zuen gelan zer dinamika sortzen den ikusi ondoren, sailkapen hau (elikaduraren araberakoa) sinpleegia iruditzen bazaizue, liburuen laguntzarekin **sailkapen konplexuagoak** plantea ditzakezue. Adibidez, belarjaleen barruan, erraldoiak (diplodokoa...), adardunak (triceratopsa....), aranztunak (ankilosauroa...), kukuladunak (estegosauroa...), ahate mokodunak (edmontosauroa)... Liburuan dagoen fitxaren ereduari behatu eta aztertu ondoren, gure gelako dinosauroen bilduma egiteko proposamena luzatuko diegu haurrei.

TAMAINA

- Bildumarako fitxa bukatzeko, aukeratutako dinosauroen luzera edo altuera idatziko ditugu. Horretarako, proiektagailua piztu eta **Interneteko bilaketa talde handian** egingo dugu.
- Komeni da luzera eta altuera magnitudeak ondo bereiztea, eta zein aztertutako dugun argitzea. Bestalde, metro hitza edo laburdura (m) bilaketarako hitz gako bezala erabiliko dugunez, arbelean idaztea eta aztertzea komeni zaigu, neurrien bilaketari ekin aurretik.

- Wikipedian “dinosauroa” izena sartuz gero, honako irudi honen antzerakoak aurkituko dituzue. Interneten irakurri ahala, bikote bakoitzak aukeratutako dinosauroaren neurria idatziko du fitxan.



http://es.wikipedia.org/wiki/Archivo:Diplodocus_size_comparison.png

- Dinosauroen benetako **altuera edo luzera zein izan zen ikustarazteko**, koloretako zinta (paperezkoak izan daitezke, festetan erabiltzen diren serpentina modukoak) batzuk eramango ditugu eta metroko makilak erabiliz, kolore bakoitzeko zinta dinosauro baten neurrira moztuko dugu. Adibidez, Triceratopsaren luzera adierazteko zinta berdea aukeratu badugu, 4 metroko luzera emango diogu.
- Zinta guztiak neurrira moztu ondoren, ikastolako pasabidean, lurrean edo horman itsatsita kokatuko ditugu, behealdean zinta bakoitzari dinosauroaren izena jarrita, eta gaia bukatu arte han utziko ditugu haurrek erreferentzia garbiak izan ditzaten.
- Soka arrunta erabiliz, dinosauro bakoitzaren luzera duten sokak egingo ditugu, eta bi haurren artean muturrei helduta, gelan zein sartuko liratekeen ikusiko dugu.
- Bukatzean, maketaren inguruan jarriko ditugu **fitxak gure erakusketa aberasteko**. Ondoren, fitxa guztiak bildu eta liburutegian jar dezakegu edota hori egin aurretik, txandakatuz etxera eraman dezakete haurrek han erakusteko. Hori egitea erabakitzen baduzue, prestatu grapatutako orritxo batzuk familia bakoitzak bildumari buruzko iritzia bertan idazteko.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

19. JARDUERA	**DINOSAUROEI BURUZ GEHIAGO JAKITEKO**

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.1 Ahozko azalpen sinple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaiei buruzkoak).

1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) deskodetzea eta bere esanahia zehatz eta azkar interpretatzea

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.1.4 Entzundako testu baten oinarrizko ideia batzuk gogoratzen ditu eta ahoz adierazten ditu haiei buruzko galdera zuzenei erantzunez.

1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzeko interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Birraitonaren museoa I (CD-ROMa); ordenagailua eta proiektagailua

AZALPENA

Dinosauroei buruz gehiago ikasteko, CD-ROMera joko dugu. Hainbat kontzepturekin loturiko esaldiak osatuko dituzte. Aitonaren tailerrean, hitzak ordenatzeko jarduera aukeratu eta ekin lanari.

- Gelako ordenagailua eta proiektagailua martxan jarri eta talde osoarekin hitzak ordenatuko ditugu.
- Lehenengo, aitonak dioena entzun eta talde osoak errepikatuko du.
- Ondoren, esaldiak dituen hitz kopuruaren araberako haur talde bat altxatuko da. Adibidez, esaldiak bost hitz baditu, bost ikasle altxatuko dira.
- Ikasle horiek, banan-banan, hitzaren gainean klikatu eta beren tokira eramango dute. Bitartean, talde osoarekin, ariketa aurrera eramateko estrategiak partekatuko ditugu. Adibidez, arrastoen bidezko hitzen aukeraketa edo azkeneko hitza zein den jakiteko, puntua non dagoen begiratzea.
- Esaldiak adierazten duen informazioari buruzko hausnarketatxoa egingo dugu talde handiarekin, hurrengo esaldiari ekin aurretik.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

20. JARDUERA	**DESKRIBAPENTXOAK** (IGARKIZUNAK)

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren ahozko mezu sinpleetan, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion informazio zehatzak identifikatzea.

1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.

4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetza eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.2.2 Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako aprendizaia egoeretan hainbat zeregin burutzeko (galdetegiei erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.

1.3.2 Berak esandakoari buruzko galderak erantzuten ditu (azalpen zehatzagoa, informazio gehiago...).

4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Irakurgaiak, 26-27. or.

AZALPENA

- Asmakizunetara jolastuko gara, dinosauro ezagunen izenak eta ezaugarriak gogoratuz.
- Ikasleei orrialde horietan dauden marrazkiei arretaz begiratzeko eskatuko diegu. Denon artean ikusten dituzten dinosauroen izenak esango ditugu.
- Irakasleak deskribapen bat irakurri eta testuan azaltzen diren hitz gako batzuk ikustaraziko dizkie ikasleei (adibidez: bi, auto, autobus), irakurtzen ez dakitenei pistak emateko.
- Deskribapen bakoitzari beren ustez dagokion dinosauroa aukeratzeko esango diegu. Ondoren, irakasleak deskribapena berriz irakurriko du aurreneko aukeraketa mantentzen duten edo ez erabakitzeko.
- Ikasle bati galdetuko diogu bere aukeraketaz. Ados ez dagoen beste bati zein aukeratu duen galdetuko diogu. Bi ikasle horien artean eztabaida sortzen saiatuko gara. Ikasle bakoitzak bere aukeraketarako arrazoiak eman beharko ditu. Erantzun egokia zein den erabaki ondoren, prozedura bera jarraituko dugu gainerako testuekin.
- Orain haurrei dagokie ezagutzen dituzten dinosauroen deskribapenak ahoz egitea. Ea besteek asmatzen duten zein dinosauroz ari den bakoitza. Adibidez: “Azalean hezur plakak ditu eta bere isatsa mailu forma dauka” (Ankilosauroa)

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

21. JARDUERA	**ZER DUTE BERDINA IZEN HAUEK?**
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) deskodetzea eta bere esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.	
EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)	
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzeko interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Bakarka
MATERIALA	Lan-koadernoa, 13. or
AZALPENA	
• Dinosauroen izenekin jolasten jarraituko dugu. • Jarduera honetan dinosauroen izenak binaka multzokatuta aurkituko dituzue eta bikote horien hasieran nahiz bukaeran, berdintasun batzuk ikusiko dituzue. • Aurreko unitatean ariketa bera egin zenutenez, seguru asko, ez da beharrezkoa izango hainbat adibide arbelean egitea. Bestela, liburura jo aurretik egokia litzateke, elkarrekin, talde handian, hainbat adibide arbelean ikustea. Horrela, ikasleek ariketa zertan den erraz ulertuko dute. • Haurrek berdinak diren letrak eskuinean agertzen diren marratxoetan idatziko dituzte. • Ereduan azaltzen diren izenez gain, haurrek edo irakasleak proposatutakoak ere erabil ditzakegu. Jolas bezala, gustukoa dute haurrek, eta idatziaren behaketarako ariketa aproposa da. • Lan-koadernoko fitxa behin eta berriro egin dezakezue dinosauroen izenak aldatuz edo beste hitz batzuk erabiliz. Aldaketa horiek onartzen dituen fitxa liburu digitalean daukazue.	
HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…	

22. JARDUERA	**BERDINAK DIRENAK KOLORE BERAREKIN MARGOTU**
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) deskodetzea eta bere esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.	
EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)	
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzeko interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Binaka
MATERIALA	Lan-koadernoa, 14. or.
AZALPENA	
• Dinosauroen izenekin jolasten jarraituko dugu. • Idatziaren behaketarako aproposa da ariketa hau. Izenak bi aldiz idatzita daude eta haurrek berdinak direnak identifikatu beharko dituzte. • Aurreko unitatean ariketa bera egin zenutenez, seguru asko, ez da beharrezkoa izango hainbat adibide arbelean egitea. Bestela liburura jo aurretik egokia litzateke, elkarrekin, talde handian, hainbat adibide arbelean ikustea. Horrela, ikasleek ariketa zertan de erraz ulertuko dute. • Ereduan azaltzen diren izenez gain, haurrek edo irakasleak proposatutakoak ere erabil ditzakegu. Jolas bezala, gustukoa dute haurrek eta idatziaren behaketarako ariketa aproposa da. • Lan-koadernoko fitxa behin eta berriro egin dezakezue dinosauroen izenak aldatuz edo beste hitz batzuk erabiliz. Aldaketa horiek onartzen dituen fitxa liburu digitalean daukazue.	
HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…	

23. JARDUERA	**LETRA ZOPA**
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) deskodetzea eta bere esanahia zehatz eta azkar interpretatzea. **4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetza eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.**	
EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)	
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzeko interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. 4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Binaka
MATERIALA	Lan-koadernoa, 15. or.
AZALPENA	
• Letra-zopa horretan dinosauro ezagunen izenak aurkitu beharko dituzte haurrek. Erreferentziak inguruan azaltzen diren dinosauroen marrazkiak dira. • Lehenengo, talde handian inguruan dauden dinosauroen izenak gogoratuko/irakurriko ditugu. • Hasi aurretik, zutabeak eta lerroak zer diren argituko dugu, eta hitzak bilatzeko estrategiak partekatuko ditugu. • Ikasleak binaka jar ditzakegu, baina norberak bere fitxa izango du. Horrela, elkarri lagunduz izenak aurkituko dituzte. • Letra-zopa gehiago nahi badituzue, CD-ROMeko sotora joan, baina jolas hori aktibatzeko, gogoratu lehenago hainbat jarduera egin beharko dituzuela. (Ikusi *Birraitonaren museoa 1* CD-ROMaren irakaslearen gida) • Lan-koadernoko fitxa horretan azaltzen diren izenak, beste animalien izenekin edo beste izenekin ordezka ditzakezue. Aldaketa horiek onartzen dituen fitxa Txanela.net-en aurkituko duzue 54. jarduera izenburupean, baita liburu digitalean ere.	
HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…	

24. JARDUERA	**ELKARTASUNEZKO JOLASA**

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.

1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaera eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) ahozko aurkezpen sinpleak egitea, eskainitako jarraibideen laguntzaz.

2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atseden eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzea; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutuz, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.

2.5 Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.

1.4.4 Zuzentasun onargarriarekin hitz egiten du, gelan landutako erabilera okerrak (hiztegia, morfosintaxia...) identifikatuz eta zuzenduz.

2.3.4 Emozioak eta sentimenduak (amorrua, beldurra, poza, tristura, asperdura...) identifikatzen ditu, eta aurrera egiten saiatzen da bizikidetzarako arazo diren horien kontrolean.

2.5.1 Gelako kideen arteko harremanetan parte hartzen du.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Bakarka
MATERIALA	Ikasleen argazki txikiak eta marrazkiak egiteko ohiko materiala

AZALPENA

- Jolas hau egiteko espazio zabal bat eta musika beharko ditugu.
- Jolasten hasi aurretik, ikasle bakoitzak dinosauro bat aukeratuko du, gehien gustatu zaiona.
- Taldeari adieraziko dio zein den eta zergatik gustatzen zaion. Egoera hori hizkuntzaren forma lantzeko eta ereduak emateko balia dezakegu. Zergatia erantzuteko esaldi kausalak erabili beharko dituztenez “zeba eta “zergatik” motako osaketei aurre egingo diegu ereduak eskainiz “-elako” edo “... bait...”
- Irakasleak musika jarriko du eta ikasleek aukeratutako dinosauroaren antzezpena egingo dute.
- Segidan, gutxien gustatzen zaien dinosauroa aukeratuko dute.
- Taldeari zein den eta zergatik aukeratu duten azalduko diote.
- Irakasleak, berriz ere, musika jarriko du eta ikasleek aukeratutako dinosauroaren antzezpena egingo dute.
- Bukatzeko, ikasleei orri zuri bat emango diegu eta gehien gustatzen zaien dinosauroa marrazteko eta margotzeko eskatuko diegu. Dinosauro bakoitzaren buruan, dinosauroa marraztu duen ikaslearen argazkia jarriko dugu. Marrazkiaren azpian beren izena eta dinosauroaren izenak nahastuz, marrazkian azaltzen den dinosauroari izen berria jarriko diogu. Adibidez: MARKELSAURUS edo ANEDOKUS.
- Marrazki horiek gure erakusketa aberasteko erabiliko ditugu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

25. JARDUERA	**ARTELANA: VAMOS A HACER UN DRAGÓN ARTICULADO**

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.1 Ahozko azalpen sinple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaiei buruzkoak)

1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaera eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) ahozko aurkezpen sinpleak egitea, eskainitako jarraibideen laguntzaz.

1.12 Ahozko literaturako hainbat testu ezagutzea eta erabiltzea nork bere kultura-nortasuna eraikitzeko eta, testu horietako adierazpen baliabide batzuk aztertuz, ulermen eta adierazpen gaitasunak aberasteko.

3.3 Erreferente plastikoak eta ikus-entzunezko erreferenteak ulertzea, hautematea eta interpretatzea.

3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.1.3 Gaia identifikatzen du.

1.4.4 Zuzentasun onargarriarekin hitz egiten du, gelan landutako erabilera okerrak (hiztegia, morfosintaxia...) identifikatuz eta zuzenduz.

1.12.1. Literatura izaeradun testu edo testu zati motzak (olerkiak, abestiak, bertsoak, testu dramatikoak), tradiziozkoak nahiz egungoak, buruz ikasi eta ulertzeko moduan errezitatzen ditu.

3.3.4 Hainbat garai eta kulturatako irudiak eta arte-objektuak era bideratuan aztertzen ditu eta irudi eta objektu horiek sortu ziren testuinguruen ezaugarriei buruzko jakin-mina adierazten du.

3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak... egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.

3.4.8 Materialak manipulatuz eta aztertuz gozatzen du.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Liburua, 14. or.; herensugea egiteko sokak, makilak, koloretako zintak eta gelako ohiko materiala

AZALPENA

- Txinatar zeramika horretan agertzen den herensugeari so egingo diogu eta artelanaren azpialdean agertzen den azalpena irakurriko dugu. Zeramikazko potoan agertzen den herensugea aztertuko dugu: koloreak, forma... Ondoren, haur bakoitzak herensugea marrazteko proposamena luzatuko diegu kolore biziak eta forma arraroak erabiliz.
- Jarduera hau euskaraz nahiz gaztelaniaz/frantsesez (hizkuntza egoeraren arabera) egitea egokia izan daiteke. Hori dela eta, jardueraren deskribapena gaztelaniaz egin dugu. *Vamos a hacer un dragón. Nuestro dragón articulado.*

Curro:

- *Hola cuadrilla. Aquí me tenéis de nuevo. ¡Qué dragón más bonito hemos visto! ¿Verdad? ¿Y si hiciéramos un dragón esta tarde/mañana? Aquí tenemos: cartulinas, rotuladores negros, pinturas de colores... para dibujar nuestro dragón. Y otras cosas para decorar el dragón: lana, cintas, botones, telas... También tenemos palos (listones) y cuerdas para hacer bailar nuestro dragón. ¿Qué vamos a hacer?*
- *Haremos grupos de dos o tres personas y cada grupo hará una parte del dragón. Primero, cada grupito de vosotras-os cogerá una cartulina y las colocaremos en fila en el suelo. Luego, entre todos, dibujaremos un dragón en las cartulinas. Después, pintaremos el dragón con muchos colores. Luego lo decoraremos con todas estas cosas que tenemos aquí. Finalmente, uniremos las cartulinas con cuerdas y le pondremos unos palos para hacer bailar nuestro dragón.*
- *¿Por dónde empezamos? Hay que dibujar el dragón: Le haremos la cabeza... ¿Qué le pondremos? ¿Boca? ¿Orejas? ¿Nariz? ¿Ojos?... El cuerpo... Le(s) pondremos patas? ¿Cuántas? ¿Le pondremos cola? ¿Cuerpo gordo, flaco...? ¿Cola corta, larga...?*
- *Después hay que pintarlo. Marcaremos las formas con pintura negra y rellenaremos los espacios con colores muy alegres: verde claro, naranja, amarillo, rojo... ¡Mucho amarillo! ¿Qué no queréis que tenga(n) mucho amarillo? ¿Por qué? Si es muy bonito. Vale, vale, ya me callo. ¿Qué colores preferís vosotros?*
- *Y luego...¿Cómo lo(s) decoraremos? ¿Le(s) pondremos pelo? ¿Cómo? ¿Con qué?¿Barba?¿Gafas?¿Bufanda?*
- Reparte las cartulinas y organiza los grupos. Cada grupo tendrá sus pinturas. Cuando terminen de pintar te pedirán el material que necesiten para decorar el dragón. *Un poco de lana, por favor. Toma. Gracias...* Dependiendo de la competencia comunicativa del alumno en este idioma es posible que tengamos que trabajar de antemano el vocabulario del material que vamos a utilizar y las frases necesarias para llevar a cabo la acción.

- *Cuando hayamos terminado con el dibujo perforaremos (haremos dos agujeros) las cartulinas en cada costado (un agujero arriba y otro abajo) y le pasaremos una cuerda para unir las cartulinas. Para terminar el dragón podemos colocarle dos listones bastante largos, uno en la cabeza y otro en la cola y podremos llevar el dragón (como si fuera una pancarta) de un lado a otro y bailar con él.*
- *¿Y cómo le(s) llamaremos?* Podemos proponer un nombre cada uno y hacer una votación. Esta puede ser una buena ocasión para trabajar los números.
- Podemos jugar a adivinar de quién es cada trozo del dragón, o el trozo favorito... *Mi cacho (trozo) es de color xxx, tiene x patas, la cola muy larga, pelo xxx, etc. ¿Cuál es?*
- *¡Qué bonito es nuestro dragón¡ Os voy a leer una poesía que he inventado sobre un dragón:*

  EN EL BOSQUE HABÍA UN DRAGÓN.
  UN DRAGÓN PEQUEÑITO,
  UN DRAGÓN MUY BONITO
  CON UN GRAN CORAZÓN.
- *¿Queréis hacer un dibujo con el dragoncito del bosque? Si queréis, además, podéis copiar la poesía detrás del dibujo y guardarla en vuestra carpeta. Y además, podemos aprender un cachito de la poesía... Y si queréis, también podemos jugar a transformar la poesía... Por ejemplo, podemos cambiar la palabra dragón por ladrón, avión, camión, a ver qué gamberrada nos queda... O podemos cambiar "con un gran corazón" y podemos decir "era un gran tontorrón" o "le salió un chichón"... Y así podemos jugar a cambiar cualquier palabra y nos pueden salir cosas muy graciosas.*

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

26. JARDUERA	**IPUINA: "AMONA BLASI ETA HERENSUGEKUMEA"** (Ikusi *Elkarrizketaren kudeaketa* dokumentua)

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.1 Ahozko azalpen sinple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaiei buruzkoak)

1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.

1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaera eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) ahozko aurkezpen sinpleak egitea, eskainitako jarraibideen laguntzaz.

1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.1.1 Azalpena arretaz entzuten du.

1.1.4 Entzundako testu baten oinarrizko ideia batzuk gogoratzen ditu eta ahoz adierazten ditu haiei buruzko galdera zuzenei erantzunez.

1.4.3 Era ulergarrian eta erraztasun nahikoarekin adierazten ditu bere ideiak.

1.3.2 Berak esandakoari buruzko galderak erantzuten ditu (azalpen zehatzagoa, informazio gehiago...).

1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta... entzuketak, irakurketa txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Irakurgaiak, 28-31. or.; gida honen bukaerako ipuinaren bertsio luzea

AZALPENA

Txilikuk idatzitako ipuina irakasleak ikasleei irakurriko die. Ipuina lau zatitan banatu dugu, eta, zati bakoitzarekin lotuta, ikasleei hainbat galdera egitea proposatzen dizuegu, gertatuko denaren inguruko hipotesiak egiteko. Galdera horiek, jakina, irakasleak ikasleen interesen eta erantzunen arabera, egokitu, baztertu edo berriak asmatu beharko ditu.

Irakaslea aulki batean eseriko da, gelako liburutegiaren aurrean, eta ikasle guztiak berari begira lurrean eseriko dira.

IRAKURTZEN HASI AURRETIK

Ipuina irakurtzen hasi aurretik, izenburuari erreparatuko diogu. *Ba al dakizue zer den herensuge bat? Nola jaiotzen ziren? Existitzen al dira? Zer uste duzue gerta dakiokeela amona Blasiri herensugekumearekin?* Ikasleen hipotesiak entzun ondoren, irakaslea ipuina lasai eta ozenki taldeari irakurtzen hasiko zaio.

IRAKURRI BITARTEAN (Testu osoan gida honen eranskinetan aurkituko duzu)

28. orrialdea

- Lehenengo zatia irakurri ondoren, ikasleei irakurritakoaren inguruan hipotesiak egin ditzaten, hainbat galdera egingo diegu: *Zer erori zen amona Blasiren balkoira? Amona Blasi izutu al zen? Zergatik? Zer egingo zenukete zuek, egoera horren aurrean?*

29. orrialdea

- Hurrengo zatia irakurri ondoren berriro zuzenduko gara haurrengana. Orain badakigu zergatik sartu zuen amona Blasik herensugekumea etxera. *Zer uste duzue gertatuko dela amona Blasiren etxean?*

30. orrialdea

- Azkeneko zatiari ekin aurretik, gerta daitekeenari buruz galdetuko diegu ikasleei. *Zer arazo zeukan amona Blasik? Nola uste duzue konponduko duela?*

31. orrialdea

- Bukatzeko. azken zatia irakurriko dugu eta ipuinean gertatu dena eta haurrek botatako hipotesiak alderatuko ditugu.

Beste egun batean, talde handiko irakurketa egingo dugu. Ikasle bakoitzak liburua aurrean duela, ilustrazioari behatzeko denbora-tarte bat emango diegu. Jarraian testuaren gaineko hipotesiak egiteko eskatuko diegu eta irakurketari ekin aurretik horietako batzuk entzungo ditugu. Ondoren, denok elkarrekin testua irakurriko dugu. Bukatzeko, kodearen gaineko hausnarketa egiteko jolas moduko galderak egingo dizkiegu ikasleei. Adibidez: *Zenbat aldiz azaltzen da protagonistaren izena? Ba al dago letra berarekin hasten den beste hitzik? Zein da zati honetan dagoen hitz luzeena? Eta motzena?...* Lanketa hori egin ondoren, ikasleek liburua etxera eramango dute ipuina gurasoei irakurtzeko edo kontatzeko.

IRAKURRI ONDOREN

Ikusi hurrengo jarduera

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

27. JARDUERA	**LIBURUTEGIKO MASKOTEN AURKEZPENA** (Jarduera-sekuentzia da)

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) deskodetzea eta bere esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.
1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.
1.12 Ahozko literaturako hainbat testu ezagutzea eta erabiltzea nork bere kultura-nortasuna eraikitzeko eta, testu horietako adierazpen baliabide batzuk aztertuz, ulermen eta adierazpen gaitasunak aberasteko.
1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzeko interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. (1. maila)
1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) kodetzean aurrerapenak eginez.
1.12.1 Literatura izaeradun testu edo testu zati motzak (olerkiak, abestiak, bertsoak, testu dramatikoak), tradiziozkoak nahiz egungoak, buruz ikasi eta ulertzeko moduan errezitatzen ditu.
1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta... entzuketak, irakurketa txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Liburutegiko maskota; Lan-koadernoa, 16-17. or.

AZALPENA

Dagoeneko gela antolatuta daukagu, beraz, liburutegiko txokoarentzat espazio egoki bat ere egokituta daukagu. Irakurketarako zaletasuna bultzatzeko, liburutegirako maskota bat aurkeztea proposatu nahi dizuegu, eta amona Blasiren ipuina baliatuz, maskota hori, Pitxi herensugekumea izan daiteke. Ikusi adibide bat Ikastola.net /ikasmaterialgintza/Txanela/ multimedia.

Liburutegiko erreferentzia gisa erabiliko dugun pertsonaia horrek taldean irakurtzeko ipuinak proposatuko dizkigu, guk kontatutako ipuinak entzungo ditu, liburuei buruzko pistak uzten joango da, eskutitzak idatziko dizkigu liburu batean agertzen den pertsonaia bati buruz hitz eginez. Pitxiren panpina edota marrazkia egitea proposatzen dizuegu liburutegiaren txokoan jartzeko. (Ikusi adibide bat Ikastola. net /ikasmaterialgintza/ multimedia/ argazkiak....).

Bukatzeko, Pitxi liburutegiko maskota gisa adoptatu ondoren, proposatzen dizuegun hitz-jokoa ikas dezakezue buruz. Irakasleak keinuak eginez esaldiak esan ondoren, egindako keinu berberak eginez errepikatu beharko dute haurrek testua. Osorik ikasi beharrean, ikasle batzuk Pitxiren hitzak eta beste batzuk amonarenak ikas ditzakete. Horrela, elkarrizketa moduan, binaka errezitatu ahal izango dute. Beste egun batean elkarrizketa hori edo asmatutako beste bat idatzi dezakezue lan-koadernoko 16. orrialdean. Beste egun batean, ipuinekin lotuta dauden lan-koadernoko koplak lantzea egokia izan daiteke.

"•MIXI, MIXI, MIXI!"
AMONA BLASIK PITXIRI.
"A...A...TXIS!"
DOMINISTIKU NIK, PITXIK.
"IXO, IXO, IXO!
ZAUDE ISILIK!

PUIN PITXI PUTXI POLITA
KONTATUKO DIZUT".
A... A... A…. IXO!
NI GAIXO!
KONTATUKO IPUIN ASKO".
Txiliku

LAN KOADERNOA 17. or.: BERTSOA OSATU

- Koplak arbelean idaztea edo proiektatzea komeni da, ikasle guztiek prozesuari jarrai diezaioten.
- Bertsoak abesteko hainbat doinu erabil ditzakegula esango diegu. Horietako bat aukeratu eta abestuz irakurriko dugu. Adibidez *Ama begira zazu* edo *Airetun txikitun, airetun aire…*
- Irakasleak lehenengo kopla irakurriko du, hatzarekin jarraituz ikasleek irakurketa jarrai dezaten, hutsunera iristean musikarekin jarraituko du, eta falta den hitzaren silaba adina *la-la-la* egingo ditu., hor zerbait falta dela ikusaraziz.
- Poltsan dauden hitzei ekingo diegu orain. AURREAN eta LURREAN hitzak arbelean idatzi, txalotuz irakurri, zer duten berdina eta ezberdina aztertu, luzera konparatu…
- Berriz kopla irakurriko dugu eta lehenengo hutsunean zein hitz jarriko luketen pentsatzeko Segundo batzuk emango dizkiegu. Gehienek eskua altxatu dutenean, beren erantzuna ondoko lagunarekin egiaztatzeko aukera emango diegu. Bukatzeko, bikote batek aukeratutako hitza esango du. Hitz horrekin irakurriko ditugu lehenengo bi lerroak eta beste ikasleei ea zentzua ote duen galdetuko diegu. Erantzuna baiezkoa bada, hurrengo urratsari ekingo diogu. Testuak zentzurik ez badu, beste hitzarekin irakurriko dugu eta koplak zentzua ote duen galdetuko diegu.
- Bigarren testuarekin irakasleak berriz ere kopla irakurriko du. Hortik aurrera autonomia nahikoa duten ikasleei beraiei bakarrik egiten utziko die eta besteekin elkartuko da, hitzak irakurri, aztertu eta non jarri behar diren erabakitzeko.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

28. JARDUERA	**OLERKIA: "ZAZPI BURU, ZAZPI GEZUR"**

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.1 Ahozko azalpen sinple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaiei buruzkoak).

1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) deskodetzea eta bere esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.

1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.1.1 Azalpena arretaz entzuten du.

1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzeko interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.

1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta... entzuketak, irakurketa txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Irakurgaiak, 34. or.

AZALPENA

Gaiari, Joxan Ormazabalen olerkiaren bidez, helduko diogu. Hau da, herensugeen mundu fantastikotik, dinosauroen garaira itzuliko gara.

- Lehenbizi, Irakasleak irakurriko du olerki osoa. Ondoren, banaka, goiko zatitxoa bakarrik irakurtzeko eskatuko diegu. Berriro guztion artean irakurriko dugu lehenengo zatia. Era horretan, zatika irakurriko dugu olerkia.
- Irakurri ondoren, tartetxo bat eman isiltasunean bakoitzak ahal duena irakurtzeko.
- Bukatzeko, olerkiarekin eraldaketak egitera jolas dezakegu. Lehenengo, adibide bat jarriko dugu ariketa zertan den ulertzeko. Horretarako olerkiaren lehen zatiaren eraldaketatxo bat aurkeztuko diegu. Adibidez: ZAZPI BELARRI / ZAZPI SUDUR / MUNSTROAK ZINEMAN BAKARRIK / BIZI DIRELA / ZAUDE ZIUR.
- Zati horren inguruan eurek nahi dutena proposa dezatela. Oraingoz, ez da garrantzizkoa izango erritmoa eta errima mantentzea. Besterik gabe, jolastu egingo gara.
- Ondoren, girorik badugu, bigarren eta hirugarren zatiei hel diezaiekegu jolas bera egiteko. Eurek proposatzen ez badute, hona hemen adibidetxo bat: BAINA BAZIREN / IPURDIA BURUAN ZUTEN / ANIMALIA TXIKITXOAK / TXITXITXATXUAK ZIREN / EZ ZIREN ARKAKUXOAK.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

29. JARDUERA	**ENTZUNALDIA: BERLIOZEN "SINFONIA FANTASTIKOA"**

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.1 Ahozko azalpen sinple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaiei buruzkoak).

3.1 Musika entzumen bidez hautematea eta ulertzea.

3. 4. Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.1.1 Azalpena arretaz entzuten du.

3.1.4 Hainbat estilo eta kulturatako musika-konposizio labur aktiboki entzuten ditu.

3.1.6 Ingurumeneko soinuak aurkitzeko jakin-mina du, eta hainbat estilo eta kulturatako musika-lanak entzuten gozatzen du.

3.1.9 Entzuketetan eta beste hainbat musika-emanalditan izan beharreko jokabideak ezagutzen eta errespetatzen ditu.

3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak... egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Bakarka
MATERIALA	Jardueren CDa; marrazkia egiteko ohiko materiala

AZALPENA

Berlioz-en *Sinfonia Fantastikoa*ren 4. mugimendua entzungo dugu istorio baten laguntzaz.

- Ezertan hasi aurretik, Berliozen biografia irakurriko diegu haurrei. Argazkia lortu eta "Gure konpositoreen txokoan" itsatsiko ditugu.
- Musika entzuten hasi aurretik, haurrei istorio bat kontatuko diegu:

  Behin batean, dinosauroak lurrean bizi ziren garaian, Diplodoko handi baten pausoak entzun ziren. Haserre zegoen, norbaitek ur-putzua zikindu ziolako, eta haren atzetik abiatu zen amorruz beteta. "Nork zikindu dit putzua? Harrapatuko dut!" esaten zuen haserre bizian eta bila jarraitu zuen. Animalia misteriotsuaren atzetik zihoanean, berak jaten zituen belar gozoenak zapalduta zeudela konturatu zen. Bere onetik aterata garrasika hasi zen berriro: "Zeinek zapaldu dizkit nire belar gozoenak? Zeinek? harrapatuko dut!"

  Animalia misteriotsuaren urratsei jarraituz zihoala, haitzulo batean gorderik zegoela konturatu zen. Nor ote zen? Haitzuloan sartu eta... Herensuge txiki bat zen! Diplodokoak harrapatu behar zuenean, herensuge txikiak zulo batetik ihes egitea lortu zuen eta jazarpen-lasterketa bat hasi zen. Diplodokoak pauso handiak ematen zituen. Herensugea beldurturik zegoen, baina harrapatzen uzteko prest ez zegoenez, hegoak zabaldu, eta hegan hasi zen. Diplodokoak harrapatu nahi zuen baina ezin. Halako batean, ba al dakizue zer gertatu zen? Bada, harrapatzera zihoala...

  Haur bat esnatu zen. Haur baten amesgaiztoa zen. Noski, herensugeak ez dira inoiz existitu eta dinosauroak aspaldi desagertu ziren! Eta hala bazen ez bazen...
- Istorioa kontatu ondoren, musika jarriko diegu eta diplodokoaren pausoak entzuten dituztenean eskua altxatzeko eskatuko diegu. Haurrek, tinbalak entzutean, berehala esango digute Diplodokoa dela.
- Bukatzeko, ipuina beraiek irudikatu duten bezala marraz dezakete orri zurian.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

30. JARDUERA	**GONBIDAPENAK**

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.

1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.

3.4. Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.

1.6.2 Testu genero sarrienak bereizten ditu, beren oinarrizko ezaugarriak hautemanez.

3.4.7 Baliabide digitalak aztertzen ditu, ekoizpen pertsonalak sortzeko.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Liburua, 14. or.; ordenagailua; Birraitonaren museoa 1, CD-ROMa; proiektagailua edo material osagarria

AZALPENA

Proiekturako proposamena irakurri ondoren, testua moldatzen hasiko gara. Oraingoan ordenagailua eta proiektagailua erabiliz, talde handian jendea maketa ikustera etortzeko gonbidapena idaztea proposatzen dizuegu. Maketa gelatik kanpo jarri baduzue, maketa non dagoen iragarriz eta ikustera etor daitezen gonbidatuz, kartela egin beharko duzue.

Ez ahaztu *Birraitonaren Museoa 1* CD-ROMean idazketa tailerra daukazuela. Han aurkituko dituzuen tresnak baliatuz, gonbidapen dotorea idatz dezakegu.

KOMUNIKAZIO EGOERA AZTERTU, IDEIAK SORTU ETA ORDENATU

- Erakusketaren berri emateko zer egin dezakegun galdetuko diegu haurrei. Haurren aldetik aterako diren ideiak arbelean idatziko ditugu, aurrera eramateko zer egin dezakegun aztertzeko.
- Gonbidapenaren ezaugarriak, hau da, noiz nork eta zertarako jasotzen edo bidaltzen diren, talde handian aztertuko dugu.

EDUKIA GARATU, HIZKUNTZA FORMA EGOKIAK BILATU ETA KODIFIKATU

- - Idatzi behar duten testuaren ahozko planifikazioari ekingo diogu, erakusketaren eguna, ordua eta lekua zehaztuz.
- - Idatz dezakegunaz hitz egingo dugu, testua arrazoituz eta proposatzen dutenaren egokitasunaz hitz eginez.

BERRIKUSI ETA EDITATU

- Pantailan bateratze-, zuzentze-, adoste… lana egin ondoren, testua berrirakurri egingo dugu.
- Azkenik, behar ditugun kopiak inprimatuko ditugu edo material osagarrian haur bakoitzak idatzi edo arbeletik kopiatuko du.
- Bukatzeko, Ferminek dioena irakurriko dugu. *Zergatik esaten ditu Ferminek bi hitz horiek?* Aurreko jardueran egin dugun herensugearen azpian, elkarren atzean ilara luze bat osatuz, gonbidapenak banatzera joan gaitezke. Seguru asko haurrei beraiei bururatuko zaie aipatutakoa. Beraz, utzi zure ikasleei hipotesiak egiten eta adierazten gure proposamena azaldu aurretik.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

31. JARDUERA	**AZALPEN TESTUA: DINOSAUROAK**

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.1 Ahozko azalpen sinple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaiei buruzkoak).

1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren ahozko mezu sinpleetan, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion informazio zehatzak identifikatzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.1.1 Azalpena arretaz entzuten du.

1.1.3 Gaia identifikatzen du.

1.2.2 Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako aprendizaia egoeretan hainbat zeregin burutzeko (galdetegiei erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Talde txikian
MATERIALA	Irakurgaiak, 25. or.

AZALPENA

- Irakurgaietan dinosauroei buruzko azalpen testua aurkituko duzue.
- Irakasleak ikasleei dinosauroei buruz gauza gehiago ikasteko testu bat irakurriko diela esango die. Hala ere, liburua esku artean dutela, denbora-tarte bat emango diegu irudiak eta testua behatzeko/irakurtzeko.
- Behin irakasleak irakurri ondoren, testuaren ulermen orokorrari begira testuaren ideia nagusia, hau da, zeri buruzkoa den galdetuko diegu. Ondoren, testuaren izenburua asmatzeko eskatuko diegu.
- Zehaztasunetara joz, egia/gezurra gisako jolasa antolatuko dugu. Ahoz edo idatziz egin dezakegu honako esaldi hauen inguruan:
  - Dinosauroak lehorreko animaliak ziren.
  - Dinosauro guztiak ez ziren erraldoiak.
  - Gure aitona jaio zenean desagertu ziren.
  - Filmei esker dakigu dinosauroak existitu zirela.
- Ikasleak launaka taldekatu, esaldia irakurri, eman denbora beren artean eztabaidatzeko eta erantzuna adosteko. Txandaka, taldeko kide batek taldeak pentsatu duena adieraziko du, eta talde guztien bozeramaileen arteko eztabaida bultzatuko dugu.
- Ahozkoaren ulermena lantzeko ariketak CD-ROM interaktiboan dituzue, garai bakoitzari dagokion informazio-bideoak hain zuzen ere. (Ikusi Birraitonaren museoa 1 CD-ROMaren irakaslearen gida).

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

32. JARDUERA	**HOW WERE DINOSAURS BORN?** (See *Txoko zuria* document)

ZIKLOKO HELBURUA(K)

- To participate actively in oral activities.

- To categorize and classify animals and plants by different criteria.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

- Uses basic vocabulary appropiate to context. 1
- Transfer the language from the format to other contexts. 1
- Uses non linguistic resources to convey meaning. 1
- Classifies some animals around according to this criteria: oviparous-viviparous 2

1. Eleanitz project, Hocus and Lotus materials, teachers guide
2. Txanela proiektua, Ziklo bukaerako helburuak eta ebaluazio irizpideak dokumentua.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Big group and in pairs
MATERIALA	Book page 15, hen and quail eggs, an already made dinosaur egg and the picture cards attatched at the end of the guide.

AZALPENA

In previous activities, we have been working on dinosaur skeleton fossils and how to arrange bones to build up skeletons. Looking at the bones we can have some information about what dinosaurs looked like. But how were they born?

- Wow! look at this page. Ask the pupils to look at page 11 and give them a few moments to look at it.
- Reddy is talking to an elephant. What are they saying? Let´s all read. So they are talking about eggs.
- Remember with the whole group the phrases they learnt in Are you my mummy story. This story will give you the language you need to fulfill the task.
- Are these Reddy´s eggs? - No, they are too big. - Are these elephant eggs? -No, elephants don´t lay eggs.- They are dinosaur eggs!!
- Bring different animal eggs (frog, hen, quail...) and ask them if they think they could be dog, cat, horse, rat or dinosaur, bird, duck, frog... eggs and why.
- Let volunteers role play the language they have been practising in front of the group.
- Show them the animal pictures you will find at the end of this unit. Revise with the whole group the names for those animals.
- Hand out the pictures and ask them to cut them out and group them according to what they think about how those animals were born.
- Let them work in pairs but model the language for this conversation first. (Dinosaurs lay eggs? Yes, dinosaurs lay eggs. Cats lay eggs? No, cat´s don´t lay eggs.)
- Do an example in a front of the class.
- Get them to place all the cut out pictures in front of their books.
- When they have finished check before sticking.
- Ask them if they would be interested in making some dinosaurs eggs for their model. You will need balloons, paper mache paste, tempera paint and brushes. The paper mache paste can be a store bought powder mix or it can be made using glue and long thin strips of newspaper.
- You can bring one already made egg for them to see what it looks like, but they will probably have to make the eggs with their tutor, because you will not have time to make them in a 40 minute session.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

33. JARDUERA	**ZERGATIK DESAGERTU ZIREN?** (Ikusi *Elkarrizketaren kudeaketa* dokumentua)

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.

1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) deskodetzea eta bere esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.

1.7 Irakurketa helburuari erantzuteko informazioa aurkitzea eta aukeratzea, eskueran jarritako informazio-iturriak erabiliz.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.

1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzeko interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. (1. maila)

1.7.1 Erantzun zehatzeko galderei erantzuteko informazioa aurkitzen du eskainitako testuetan.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Talde txikian/Bakarka
MATERIALA	Liburua, 16. or.; meteoritoak egiteko harri txikiak eta pita

AZALPENA

Talde osoari dinosauroak zergatik desagertu ziren galdetuko diogu. Erantzun batzuk entzun ondoren, liburura joko dugu. Jarraian egingo dugun lanaren bitartez, beren hipotesiak egiaztatzeko aukera izango dugula esango diegu ikasleei.

Orrialdeari behatzeko minutu batzuk eskaini ondoren, biribil berdean agertzen den galdera eta erantzunak irakurriko ditugu.

Esaldi bakoitzeko hitz gakoa azpimarratzeko edo biribiltzeko eskatuko diegu, talde handian hitz hori zein den eztabaidatu ondoren.

Ikasleek talde txikietan eztabaidatuko dute aukeraketa. Bitartean, irakasleak taldez talde behatuko dio ikasleen arteko elkarrizketari.

Liburuko lana egin aurretik, irakasleak galdetuko die ea entzun nahi duten zientzialariek zer dioten dinosauroen desagertzeari buruz. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, ezagunena den teoria azal dezakegu:

> Duela 65 milioi urte inguru, meteorito erraldoi batek, 6-15 km-koa, Lurra planetaren kontra jo zuen. Meteoritoak lurrikarak, tsunamiak, tornadoak, suteak, sumendien erupzioak eta hautsez eta harriz osatutako hodei erraldoiak eragin zituen. Eguzki-izpiak hainbat hilabetetan ez ziren iristen lurrera eta tenperatura asko jaitsi zen. Horren ondorioz, landareak eta animaliak hil egin ziren.

Berriz ere liburura joko dugu. Haur bakoitzak, banaka, aurretik biribildutako hitzak irakurri, eta erantzun egokia (meteoritoa) aukeratuko du ezkerraldeko laukitxoan ixa bat eginez.

Meteoritoak egiten hasi aurretik, orduan gertatu zena irudikatzeko bideoa ikusiko dugu: http://www.youtube.com/watch?v=AUE3PCjiG6s

Ondoren, maketarako proposatzen zaigun ideia irakurriko dugu. Meteoritoak eragin zuen harri-euria gure maketatik pitarekin zintzilik azalduko diren harriekin irudika dezakegu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

34. JARDUERA	**DESAGERTZEAR DAUDEN ANIMALIAK** (Ikusi *Elkarrizketaren kudeaketa* dokumentua
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz. **2.1 Ingurumen fisikoko oinarrizko elementuak eta baliabideak pertsonen bizitzarekin duten harremana ezagutzea eta haiek modu arduratsuan erabiltzeko beharraz jabetzea.**	
EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)	
1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko. 2.1.2. Gizakiok inguru naturalaren aldaketan dugun eragina eta harremanetik ondorioztatzen diren erabilera desegokiak identifikatzen ditu.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	
AZALPENA	
• Unitate honetan, bestek beste, dinosauroen desagertzea aipatu dugu. Gure inguruan ere badira, hainbat arrazoirengatik, desagertzeko arriskuan dauden edota egon diren animalia batzuk; adibidez: astoa, hartza eta euskal pottoka. Horren inguruan, talde handiko hausnarketa egitea proposatzen zaizue.. • Hiru animalia horien izenak arbelean idatzi ondoren, bakoitza zergatik dagoen desagertzear aztertuko dugu taldean, IDEAL prozedura erabiliz: Identifikatu arazoa: Animalia batzuk desagertzeko zorian daude. Definitu arazoa: Zergatik dago astoa desagertzear? Eta pottoka?... Estrategiak aukeratu: Arazoa konpontzeko zer egin ote daiteke? Aritu: Imajina dezagun “ekintza” hasten dugula, konponketarako estrategiak erabiltzen. Lorpenak ebaluatu: Imajinatu dugu neurriak hartu ditugula. Konponduko al da arazoa?	
HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…	

35. JARDUERA	**SILABAK ORDENATUZ: ANIMALIA BATZUEN IZENAK**
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) deskodetzea eta bere esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.	
EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)	
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzeko interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Bakarka/Binaka
MATERIALA	Lan-koadernoa, 18. or.
AZALPENA	
Hemen aurkezten dizuegun ariketan haurrek, silabak ordenatuz, animalien izenak osatuko dituzte. • Liburura jo aurretik egokia izango da, elkarrekin, talde handian, hainbat adibide arbelean ikustea. Horrela, ikasleek ariketa zertan den erraz ulertuko dute. • Irakasleak animaliaren izena esango du. Ikasleek, hitza txalokatuz errepikatuko dute. Haurren banakako lana izango da izena osatzeko silabak ordenan kopiatzea. Azkenik, hitza irakurri egingo dugu talde handian. • Prozedura berari jarraituko diogu hitz guztiekin. Kodeaz hausnartzeko hain egokia den era honetako ariketa gehiago *Birraitonaren Museoa I* CD-ROMean aurkituko dituzue, aitonaren txokoan, hain zuzen ere.	
HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…	

36. JARDUERA	**HITZ GURUTZATUAK**
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) deskodetzea eta bere esanahia zehatz eta azkar interpretatzea. **1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.**	
EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)	
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzeko interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. 1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) kodetzean aurrerapenak eginez.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Bakarka edo Binaka/Bakarka
MATERIALA	Lan-koadernoa, 19. or.
AZALPENA	
Dinosauroen garaiko hainbat animalien izenak dauzkagu gurutzegraman kokatzeko. • Irakasleak agindua irakurriko du. Ariketa honi zergatik deitzen zaion “hitz gurutzatuak” galdetuko diegu ikasleei. Erantzun zuzena ez badakite, ariketa bukatu ondoren talde handian ondorioztatzen saiatuko gara. • Lehenbizi, animalien irudiei behatuko diegu, eta ahoz izendatuko ditugu. • Ondoren, animalia horien izenak beheko biribiletan idatzita daudela esango diegu. Bakarka, izenak irakurtzen saiatuko dira. • Gero, talde handian, definizioak irakurriko ditugu. Denon artean definizioari dagokion animaliaren izena zein den erabakiko dugu. • Lehenbizi banaka, eta gero ondoko lagunarekin egiaztatuz, biribiletan irakurritako definizioari dagokion hitza aurkituko dute. Izenaren ondoan zenbakia idatziko dute. • Prozeduraren aurreko bi urratsei jarraituko diegu bost definizioekin. • Azkenik, zenbakiei erreparatuz, hitz bakoitza dagokion tokian idatziko dute, bakarka.	
HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…	

37. JARDUERA	**ABESTIA: "ASTOA IKUSI NUEN"**

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.11 Euskara ohiko komunikazio-eremu eta egoera gehienetan erabiltzea, euskararen normalizazio eta euskal kulturaren transmisio-prozesuetan aktiboki parte hartuz.

1.12 Ahozko literaturako hainbat testu ezagutzea eta erabiltzea nork bere kultura-nortasuna eraikitzeko eta, testu horietako adierazpen baliabide batzuk aztertuz, ulermen eta adierazpen gaitasunak aberasteko.

1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.

3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.12.1 Literatura izaeradun testu edo testu zati motzak (olerkiak, abestiak, bertsoak, testu dramatikoak), tradiziozkoak nahiz egungoak, buruz ikasi eta ulertzeko moduan errezitatzen ditu.

1.11.1 Eskola-inguruko komunikazio-eremuetan gertatzen diren pertsonen arteko harremanetan euskara erabiltzen du.

1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta... entzuketak, irakurketa txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.

3.2.3 Euskal kultura-ondarearen eta beste kultura batzuen hainbat abesti eta dantza ezagutzen ditu eta interpretatzen ditu.

3.2.8 Ahozko adierazpenarekin, musika-tresnen adierazpenarekin eta gorputz-adierazpenarekin gozatzen du eta dagokionean sentimenduak adierazten ditu.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Irakurgaiak, 32-33. or.; abestien CDa

AZALPENA

- Desagertzear dagoen animaliekin ari garenez, *Astoa ikusi nuen* kanta ikasteko une egokia da.
- *Astoa ikusi nuen*, oso aproposa da keinu adierazpena lantzeko. Haurrek kantatzen duten bitartean kantak esaten duena keinu bidez adieraz dezakete. Keinuak denon artean erabakiko ditugu.
- Lehenik eta behin, CDa jarriko dugu, ikasleek abestia entzuteko.
- Irakasleak galdetuko die ea abestia ikasi nahi duten. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, musikarik gabe ikasleek hitzak esaldika errepikatuko dituzte. Horren ostean, berriro errepikatuko dituzte esaldiak musikarekin.
- Abestia ikasi ondoren, liburuan irakurriko dugu. Tartetxo bat eskainiko diegu ilustrazioak eta testuari begiratu, eta irakur dezaten.
- Kodea lantzeko errimari beha diezaiokegu. Lerro bakoitzeko hitzen bukaerari erreparatuko diogu, eta berdin bukatzen diren hitz berriak zerrendatuko ditugu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

38. JARDUERA	CURRO NOS VISITA OTRA VEZ

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.1 Ahozko azalpen sinple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaiei buruzkoak).

1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren ahozko mezu sinpleetan, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion informazio zehatzak identifikatzea.

1.12 Ahozko literaturako hainbat testu ezagutzea eta erabiltzea nork bere kultura-nortasuna eraikitzeko eta, testu horietako adierazpen baliabide batzuk aztertuz, ulermen eta adierazpen gaitasunak aberasteko.

1.13. Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.1.2 Testuaren ulermen orokorrerako oinarrizko hizkuntz elementuen esanahia interpretatzen du (lexikoa, lokuzioak...).

1.2.1 Hainbat jarduera burutzeko emandako ahozko agindu edo jarraibideen arabera jokatzen du.

1.12.2 Hainbat narrazio-testuren (ipuinak, txisteak, komikiak...) taldekako kontaketetan parte hartzen du, pasarte laburrak argitasun nahikoarekin adieraziz.

1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta... entzuketak, irakurketa txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Gida honen bukaerako abestiaren letra

AZALPENA

Jarduera hau euskaraz nahiz **gaztelaniaz/frantsesez** (hizkuntza-egoeraren arabera) egitea egokia izan daiteke. Hori dela eta, jardueraren deskribapena gaztelaniaz egin dugu.

- *¡Hola cuadrilla! Ya me he enterado de que estáis hablando de algunos **animales que están a punto de desaparecer** si no hacemos nada. ¡Qué pena, penita! Bueno, bueno, pero no nos pongamos tristes. Yo he venido contento, porque sé una canción de un burrito muy bonita y os la quiero enseñar.* (La letra de la **canción** se halla al final de esta guía).
- Os proponemos trabajar esta canción a través de **gestos**. El objetivo no es que los alumnos y alumnas aprendan a nombrar las partes del cuerpo en castellano, sino que disfruten del texto y participen en la actividad. Cada vez que nombremos una parte del cuerpo tendrán que tocarla y hacer el gesto correspondiente. En principio el profesor y más adelante un alumno dirigirán el juego *!Ay, estoy enfermo! Me duele... la cabeza. Me duele... las rodillas... Me duele la nariz...*
- *Os quiero hablar de un burrito muy famoso. Famoso en el mundo entero.. Y no fue famoso por haber inventado nada, sino por que lo inmortalizó un gran escritor: Juan Ramón Jiménez. Os voy a leer un fragmento (cachito) del libro **Platero y yo.** Platero era el nombre de un burrito. A ver que sensación os da. Seguro que no entendéis muchas palabras pero da igual, luego, si queremos, aclaramos algunas. Escuchad:*

PLATERO

Platero es pequeño, peludo, suave; tan blando por fuera que se diría todo de algodón, que no lleva huesos. Solo los espejos de azabache de sus ojos son duros cual dos escarabajos de cristal negro. Lo dejo suelto, y se va al prado, y acaricia tibiamente con su hocico, rozándolas apenas, las florecillas rosas, celestes y gualdas... Lo llamo dulcemente: "¿Platero?", y viene a mí con un trotecillo alegre que parece que se ríe, en no sé qué casacabeleo ideal... Come cuanto le doy. Le gustan las naranjas mandarinas, las uvas moscateles, todas de ámbar; los higos morados, con su cristalina gotita de miel... Es tierno y mimoso igual que un niño, que una niña...; pero fuerte y seco por dentro como de piedra. Cuando paseo sobre él, los domingos, por las últimas callejas del pueblo, los hombres del campo vestidos de limpio y despaciosos, se quedan mirándolo.

PLATERO Y YO (Elegía andaluza) J.R. JIMÉNEZ (Premio Nobel de Literatura 1956)

- *¿Qué os ha parecido?¿Habéis entendido algo?¿Qué? ¿Pensáis que el escritor quería mucho a su burro o que no? ¿Por qué?*

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

39. JARDUERA	**KOMIKIA**

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) deskodetzea eta bere esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.

1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzeko interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.

1.6.3 Hitzezkoak ez diren elementuen eta testu-ezaugarri batzuen (irudiak, tipografia, espazioaren banaketa...) esanahia egoki interpretatzen du.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Bakarka/Talde handian
MATERIALA	Liburua, 17. or.

AZALPENA

- Komikia Txanela proiektuaren lehen zikloaren istorioari, ardatzari, lotura emango dion elementua da. Horregatik, komeni da aurreko komikian zer gertatu den gogoratzea. Gogoratzen al zarete nola bukatu zen azkeneko komikia? Zer gertatuko ote zaie dinosauroen garaian? Museorako piezarik lortuko al dute? Zer izango ote da?
- Irakurtzen hasi aurretik, izenburuari so egingo diogu eta irudiei eta testuari lasai behatzeko aukera eskaini. Ondoren, gertatzen denaren inguruko hipotesiak egin, eta adierazteko eskatuko diegu. Eman, banaka/binaka, pentsatzeko denbora eta, ondoren, partekatu ideiak. *Zer dugu orri hauetan?* (Komikia). *Zer azaldu zaio Maddaleni? Zuen ustez nola sentitzen da?*
- Haurrei banaka komikia ikusteko/irakurtzeko tartetxo bat eskainiko diegu. Ondoren, binetaz bineta, hizkuntza idatziaren baliabideen eta marrazkien xehetasunetara joz, talde handian egingo dugu irakurketa.
- Haurren irakurketa-mailan aldeak izango dutenez, hasiera batean, taldean behatu eta irakaslearen laguntzarekin (edo irakasleak) irakurri egingo du(gu).
- Gelakideen mailaren arabera, lauko taldea(k) antolatu eta haur bakoitzari rol bat emanez (narratzailea, Fermin, Maddalen eta aitona) berriz irakurriko dute. Irakurketa hori pertsonaia bera irakurriko duten ikasleak elkarrekin saioak edo irakurri ondoren egin daiteke..
- Bukatzeko, Maddaleni eta Fermini gertatuko zaiena aurreikustea eskatuko diegu ikasleei, eta hipotesiak idatziz jasoko ditugu. *Zer egingo dute hezurrarekin? Poxek jango du edo museoan jarriko dute? Beste bidaiaren bat egingo ote dute edo atseden hartuko dute?* Hurrengo komikia irakurtzerakoan, gogora ekarriko ditugu emandako erantzunak.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

40. JARDUERA	**ZER DAKIGU ORAIN DINOSAUROEI BURUZ?**

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak…) deskodetzea eta bere esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.
4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetza eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.
4.4 Hainbat testuingurutan, proposamen jakin baten arabera, prozesuan egindako ikasbideaz jabetzen da.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzeko interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.
1.5.2 Grafia-fonema korrespondentzia zuzen ezartzen du silaba zuzen, inbertso eta trabatuetan.
4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.
4.4.1 Prozesuan landutako ideiak, hainbat tresnen bidez era gidatuan biltzeko gai da.
4.4.2 Aprendizaia-prozesuaren hainbat unetan egindako lanak era gidatuan eta elkarlanean alderatuz, aurrerapena balioesteko gai da.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Talde txikian
MATERIALA	Liburua, 18. or.; post-it edo paper zatiak; kontzeptu-mapa irudikatzeko uztaiak; 15. jardueran osatutako ikasnorabidea

AZALPENA

- **Kontzeptu-mapa** erabiliz gaiaren sintesi bat egitea proposatzen dizuegu. Hala ere, gure helburua ez da haur bakoitzak dinosauroei buruz zenbat ikasi duen neurtzea, baizik eta unitatean zehar landutako eskeman adierazita ikustea, eskema horren osaketan parte hartzea eta ikaskuntza-prozesuaren balorazio positiboa egitea.
- 15. jardueran "Zer jakin behar dugu maketa egiteko?" izenburuko jardueran, **ikasnorabidea** osatu genuen. Ikasleek egin zituzten galderak baliatuko ditugu kontzeptu-mapa egiteko.
- Irakasleak ikasnorabidean dauden galderak banan-banan irakurriko ditu. Ikasleen lana arretaz entzutea eta **hitz gakoa** identifikatzea izango da. Irakasleak hitz gako hori azpimarratu edo biribildu egingo du.
- Galdera kopuruaren arabera ikasleak **talde txikian** (2-4 kide) jarriko dira. Erantzungo duten galdera aukeratuko dute, hitz gakoaren irakurketa baliatuz. Galderaren erantzuna irakasleak aldez aurretik prestaturiko paper zurian edo post-it batean idatziko dute. Talde bakoitzak edo batzuetan bi taldek, galdera bati erantzuteko ardura izango dute. Horretarako, gelan ditugun informazio-iturriei (liburuak, dinosauroen txokoa, maketa...) ondo begiratzeko eta ikasitakoa gogora ekartzeko eskatuko diegu.
- Irakasleak arbelean **kontzeptu-mapa** osatzeko **biribilak** marraztuko ditu edo alfonbraren gainean koloretako uztaiak jarriko ditu, eskeman azaltzen den eran. **Uztaiak** erabiltzeak prozesu erabat abstraktua irudikatzen laguntzen du. Ikasnorabidea osatzen zuten galderak moztu eta uztaien arteko **loturak** egiteko erabiliko ditugu.
- Irakasleak galdera irakurriko du, ikasleek beren post-it-ean edo paper zatian idatzi dutena irakurriko diote talde osoari eta uztaiaren barruan itsatsiko dute. Pauso horiek galdera guztiekin egingo ditugu.
- Jarduera bukatzerakoan, irakasleak **DIN-A3** batean mapa kopiatu eta post-it-ak edo paper zatiak ordenaturik jarriko ditu. Ondoren, ikasle bakoitzarentzat **kopia** bat egingo du, ikasleek, erditik **tolesturik,** liburuan itsasteko.
- Liburua itxi aurretik, **hasierako kontzeptu-maparekin alderatzeko** eskatuko diegu, zenbat ikasi duten aipatuz.
- Beste egun batean, elkarrekin irakurriko dugu. Irakasleak loturak edo galderak irakurriko ditu eta ikasleek berriz, beraiek idatzitako testuak. Kontzeptu-mapa berrian, informazioa biltzeko formaren berezko ezaugarriak aipatuko dira (gaia erdian, kontzeptuak letra larriz, loturak xehez...).
- Kontzeptu-mapa honelakoa izan daiteke:



HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

41. JARDUERA	**EGINDAKOA BERRIKUSTEN** (Ikusi *Elkarrizketaren kudeaketa*) dokumentua

ZIKLOKO HELBURUA(K)

1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.
2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atseden eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzea; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutuz, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.
4.4 Hainbat testuingurutan, proposamen jakin baten arabera, prozesuan egindako ikasbideaz jabetzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)

1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.
1.3.2 Berak esandakoari buruzko galderak erantzuten ditu (azalpen zehatzagoa, informazio gehiago...).
2.3.4 Emozioak eta sentimenduak (amorrua, beldurra, poza, tristura, asperdura...) identifikatzen ditu, eta aurrera egiten saiatzen da bizikidetzarako arazo diren horien kontrolean.
4.4.2 Aprendizaia-prozesuaren hainbat unetan (unitatearen hasieran eta bukaeran) egindako lanak alderatuz, aurrerapena balioesteko gai da.

METODOLOGIA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Bakarka
MATERIALA	Liburua, 19-20. or.; dinosauroen txokoko argazkia eta maketaren argazkia

AZALPENA

- Azkeneko bi orrialdeetan proiektuaren balorazioa eta komunikazioa egingo dugu. Ikasleek maketa egiteko prozesua eta maketa bera balioetsiko dute barra-diagrama baten bitartez. Bestalde, aurreko unitateetan bezala, gurasoei erakusteko argazkiak eta beren iritzia jasotzeko atala osatuko ditugu.
- Orrialde horiei ekin aurretik, dinosauroen txokoko eta maketaren argazkiak prest eduki beharko ditugu.
- Lehenengo egindako maketaren/erakusketaren argazkia, zein dinosauroen txokoko argazkiak itsatsiko ditugu.
- Argazki oina beren erara kodetuz idatziko dute ikasleek.
- Ikasleekin batera jardueraren nondik norakoak aztertuko ditugu. Grafikoaren irakurketa ardatz horizontalean datuari begiratuz hasiko dugu, gure kasuan, egindako lanaren balorazioa egiteko galderak. Gero, ardatz bertikalari erreparatuko diogu. Ikasleei errazago egingo zaie zenbat laukizuzen margotu behar dituzten erabakitzea zenbaki bidezko balorazioa hitzetan adierazten badugu. Adibidez:
  Zuen erantzuna PRIMERAN EDO BIKAIN bada, 10 edo 9 lauki margotuko dituzue.
  Zuen erantzuna OSO ONGI bada, 8 edo 7 lauki.
  Zuen erantzuna ONGI bada, 5 edo 6 lauki.
  Zuen erantzuna ERDIPURDI bada, 4 lauki.
  Zuen erantzuna GAIZKI bada, 3, 2 edo laukizuzen 1 margotu.
- Ondoren, galdera bakoitzean zer jartzen duen guztion artean deskodifikatuko dugu. Behin lau galderak deskodifikatuta, berriro lehenari egingo diogu so. Bakoitzak pentsatzeko denbora labur bat hartu eta gero, ikasleek barra-diagrama osatuko dute laukizuzenak margotuz. Irakasleak, bukatu dutela jakin dezan, liburuari buelta eman diezaiokete, era horretan bigarren galderari heltzeko. Erantzunak partekatzeko erronda bat ireki dezakegu, bakoitzak labur zer adierazi duen esateko aukera eskainiz
- Bigarren eta hirugarren galderekin prozedura bera erabil dezakegu.
- Azken atalaren (ETXEKOEN IRITZIA) behaketa egingo dugu orain. Euskaraz ez dakiten gurasoak baditugu gelan, bi galderak ondo argituko ditugu haurrek etxekoei zeregina adieraz diezaieten. Garrantzitsua da, baita ere, etxekoen erantzuna haurrak oso ondo ezagutzea berak egin beharko baitu (hainbat hizkuntzen kasuan) itzultzaile-lana.
- Gurasoei liburuxka bidaltzeaz gain, gure maketa ikustera gonbida ditzakegu. Erabakiaren baitan, ahozko zein idatzizko gonbidapena talde handian adostuko dugu eta pentsatutako moduan (ahoz/idatziz) komunikatuko dugu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa…

7. JARDUERA: DINOSAUROEN TXOKOA

Guraso agurgarriak:

Iritsi zaizue, azkenean, zuen laguntza paregabea eskaintzeko unea!

Denboraren makina berreskuratu ondoren, dagoeneko lehen bidaia egin dute eta ba al dakizue nora joan diren Maddalen eta Fermin? Ez? Bada, dinosauroen garaira! Gu hemen utzi bagaituzte ere, hilabete honetan dinosauroen inguruko gauzak ikusten eta ikasten ibiltzeko asmoa daukagu. Zer pentsatzen dute, bada, horiek! Horretarako, etxean gai horri buruz dituzuen liburuak, aldizkariak, posterrak, panpinak, etab. zuen seme-alabei ikastolara ekartzen uzteko eskatu nahi dizuegu.

Gaia bukatu bezain pronto, berriro etxera eraman ahal izateko, gauza guztietan izena eta abizenak jartzea komeni da.

Besterik gabe, zuen laguntzarekin dinosauroen txokoa materialez ondo hornituta edukiko dugulakoan, jaso ezazue gure agurrik beroena.

Urdintxo eta Pox

Queridos y leales ayudantes:

¡Al fín ha llegado el tan esperado momento en el que podéis ofrecer vuestra incomparable ayuda!

No sé si sabréis que Maddalen y Fermin ya han realizado su primer viajecito. Y no se han andado con chiquitas. ¿Para qué? Ni cortos ni perezosos han "aterrizado" en la Era de los dinosaurios. Como quien dice ayer. Y claro, nos han dejado solos con los niños y las niñas y hemos decidido que nosotros y nosotras también vamos a enterarnos de lo que pasaba entonces. A ver si cuando vengan no se hacen los listillos. Y para eso necesitamos que mandéis a la ikastola todo lo que tengáis a mano sobre los dinosaurios: muñecos, libros, posters, películas, revistas...

Para que os podamos devolver todo convenientemente al terminar el tema, será mejor que le pongáis el nombre a las cosas.

Sin más y esperando que con la colaboración de todos y todas montemos el txoko de los dinosaurios más bonito del mundo, nos despedimos hasta la siguiente.

Urdintxo y Pox

13. JARDUERA: DINOSAUROEN FOSILAK



Amona Blasi eta herensugekumea

Behin, habia bat zegoen etxe bateko telebista-antenaren gainean. Haize handia zebilen batean, habiako herensuge-kumea amona Blasiren balkoira erori zen antenatik.

Amona Blasik katua zela pentsatu zuen.

—Mixi, mixi —deitu zion, eta etxera sartu zuen.

Amona Blasik baratxuri-zoparekin hazi zuen eta Pitxi deitu zion.

—Hau katu arraroa —esaten zuen beti.

Amona Blasik bista txarra zeukan, eta ez zen konturatzen animalia hura herensuge-kumea zela eta ez katua.

Behin, katarroa harrapatu zuen Pitxik.

—A… a… a… txis! —egin zuen dominiskiku, eta balkoiko geranio denak kiskali zituen sudurreko garrekin.

Amona Blasik aspirina eman zion, baina Pitxi ez zen sendatu, eta dominiskiku egiten zuen bakoitzean zerbait erretzen zion. Ohean ere sartu zuen, ea han sendatzen zen.

Eta betaurrekoak jantzi eta ipuinak irakurtzen zizkion.

Herensugeari asko gustatzen zitzaizkion ipuinak eta dominiskiku egin beharrean, sua irentsi egiten zuen, liburua ez erretzeko.

Azkenean, sendatu zen, baina Pitxik ipuin bat entzun nahi zuen bakoitzean, *a… a… a…* hasten zen. Eta amona Blasi ziztu bizian joaten zen liburutegira, liburu bat hartu eta ipuin bat irakurtzeko.

J. M. Olaizola "Txiliku"

J. M. Olaizola "Txiliku", *Amona Blasi eta herensugekumea*, Batela bilduma. Elkar argitaletxea

32. JARDUERA: HOW WERE DINOSAURS BORN?





38. JARDUERA: CURRO NOS VISITA OTRA VEZ

CANCION DEL BURRO ENFERMO

A MI BURRO, A MI BURRO
LE DUELE LA CABEZA;
Y EL MÉDICO LE HA PUESTO
UNA GORRITA NEGRA.

UNA GORRITA NEGRA,
MI BURRO ENFERMO ESTÁ.

A MI BURRO, A MI BURRO
LE DUELE LA NARIZ
Y EL MÉDICO LE HA DADO
AGÜITA CON ANÍS.

UNA GORRITA NEGRA,
AGÜITA CON ANÍS,
MI BURRO ENFERMO ESTÁ.

A MI BURRO, A MI BURRO
LE DUELE LA GARGANTA;
Y EL MÉDICO LE MANDA
UNA BUFANDA BLANCA.

UNA GORRITA NEGRA,
AGÜITA CON ANÍS,
UNA BUFANDA BLANCA,
MI BURRO ENFERMO ESTÁ.

A MI BURRO, A MI BURRO
LE DUELE EL CORAZÓN;
EL MÉDICO LE HA PUESTO
JARABE DE LIMÓN.

UNA GORRITA NEGRA,
AGÜITA CON ANÍS,
UNA BUFANDA BLANCA,
JARABE DE LIMÓN,
MI BURRO ENFERMO ESTÁ

A MI BURRO, A MI BURRO
LE DUELEN LAS RODILLAS
Y EL MÉDICO LE MANDA
UN FRASCO DE PASTILLAS.

UNA GORRITA NEGRA,
AGÜITA CON ANÍS,
UNA BUFANDA BLANCA,
JARABE DE LIMÓN,
UN FRASCO DE PASTILLAS,
MI BURRO ENFERMO ESTÁ

A MI BURRO, A MI BURRO
LE DUELEN LAS PEZUÑAS;
Y EL MÉDICO LE HA PUESTO
EMPLASTO DE LECHUGAS.

UNA GORRITA NEGRA,
AGÜITA CON ANÍS,
UNA BUFANDA BLANCA,
JARABE DE LIMÓN,
UN FRASCO DE PASTILLAS,
EMPLASTO DE LECHUGAS,
MI BURRO ENFERMO ESTÁ

A MI BURRO, A MI BURRO
YA NO LE DUELE NADA,
PERO EL MUY PEREZOSO
DURMIENDO ESTÁ EN LA CAMA.